



## BAT SOZIOLINGUISTIKA ALDIZKARIAREN XX. URTEURRENA OSPATZEN: HAUSNARKETAK

**Maria-Jose Azurmendi**

UPV/EHUko katedraduna, BATen zuzendari ohia  
Helbide elektronikoa: ehu-azurmendi@telefonica.net

Gure *BAT Soziolinguistika Aldizkariak* 20 urte betetzen ditu 2010 urtean etengabeko ibilbide aberatsa eginez. Euskaraz argitaratzen den aldizkari zientifiko espezializatua izanik, eta Euskal Herrian bakarra ez izan arren, benetan euskal testuinguruko mirarien artean aipagarria iruditzen zait. Haste-ko, beraz, **ZORIONAK BAT Aldizkari!**

### 1. ZORIONAK BAT SORTU ETA JARRAIPENA EMAN DIOTEN GUZTI-GUZTIEI

#### 1.1. Erakunde sustatzaileei

- **Euskal Kulturaren Batzarra (EKB) erakundeari**, 1983ean sortua eus-  
kalgintza soziala batzeko, berritzeko eta bultzatzeko, 1990ean *BAT* aldiz-  
karia sortu eta 1999 bitartean lehen 30 zenbakiak argitaratu zituelako.
- **Euskal Soziolinguistika Institutua (SEI) erakundeari**, 1999-2004  
bitartean *BAT* aldizkariaren ardurarekin jarraitu eta 31-52 zenbakiak  
argitaratu zituelako.
- **Soziolinguistika Klusterra (SLK) erakundeari**, 2004. urtetik aurre-  
ra *BAT* aldizkariaren ardurarekin jarraitu duelako 53-75 arteko zenba-

kiak argitaratuz, eta 20. urteurrena ospatzeko antolatutako 76-77 zenbaki hauek prestatzeagatik.

## 1.2. Adituei

BAT egitasmoan parte hartzen dugun —eta hartu duten— aditu guztioi. Izan ere, gure artikuluekin aldizkaria osatuz eta bere ibilbide luzea mantenduz, Euskal Herriko testuinguruan euskararen egoera aztertzen saiatu gara, bere berreskuratze eta normalizazio-prozesuan hobeto eragiteko helburuarekin eta itxaropenarekin.

## 1.3. Erakunde babesleei

Hasierako garaitan zaila izan bazen ere, gerora lortu zen hainbat erakunderen babesa. Horientzat ere zorionak!, beren laguntzarekin lortu direlako emaitza aberatsak eta, espero dugu, jasangarriak ere: Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, Gipuzkoako Foru Aldundia (AIRE, AIRE! Euskarari egitasmo barruan) eta Kutxa erakundea.

## 2. ALDIZKARIAREN EGITURAZ

### 2.1. Artikuluen izaeraren aldetik

Mota askotako lanak jasotzen dira aldizkarian: teorikoak, enpirikoak eta teoriko-enpirikoak. Euskal testuingurua aztertu da gehienbat, baina baita kanpora begira baita beste testuinguru batzuk ere, beti ere gure euskal kasurako argibideak bilatuz. Lan gehienak egile bakarrekoak izan dira, baina egile desberdinen artean egindako lanak ere badira, aldizkari zientifikoetan gaur egungo joerari jarraiki. Artikulu batzuk nahiko ausartak izan direla esango nuke, alderdi positiboan ondoan negatiboak eta gabeziak ere aipatzen baitira, batzuetan kritika eginez edo eztabaidarako ideiak emanez, e.a. Gainera, gai monografiko batzuk edo DOSSIERRAK errepikatu dira, garrantzitsuak kontsideratu zirelako bere garaian. Azken urteetako Soziolinguistika Klusterraren jardunaldien ekarpenak ere ekarri dira BAT aldizkarira eta baita azken bi urteetako HAUSNARTU-Euskal Soziolinguistika Sarietako lanak ere.

Hori guztia posible izan da aldizkariak argi izan duelako beti partaidetza irekia eta anitza izan behar zuela, diziplina eta eremu askotakoak, e.a., baina denok helburu bakar batekin, lehen aipatu moduan, *BAT* izenak berak adierazi nahi duen bezala.

### 2.2. Formatu aldetik

Formatu aldetik aldizkari egokia eta aberatsa da. Zenbaki gehienetan gai monografiko baten inguruan jasotzen dira lanak DOSSIER atalean. Alabai-

---

*Horiei guztiei, bereziki lehen zuzendariari izan den Txillardegiri gure esker onak ematea ezinbestekoa zaigu orain.*

---

*Ez dugu uste, ordea,  
Euskara Euskal Herri eta  
gizarte historikoaz  
haraindiko ezer denik;  
alderantziz geure historia  
egunerokoan egiaztatu  
beharrean gaude  
euskaldunon  
bateratzailea dugula  
Euskara, geure Herriaren  
desintegrazioari uko  
eginez.*

na, beste lanak ere biltzen dira GAIK edo GUREAN atalean. Zenbaki guztiek SARRERA edo HITZAURRE GISAKoa izan dute, zenbakiaren halako laburpena edota bestelako gogoetak eginez.

Azpimarratzekoa da artikuluen laburpenak euskaraz eta ingelesez argitaratzen direla nazioarteko zabalpena erraztuz, eta paperezko formatuaz gain, BAT elektronikoa ere badagoela, gaur egun erabat beharrezkoa dena.

### **2.3. Antolakuntza aldetik**

Antolakuntza aberatsa izan du aldizkariak: zuzendaria, koordinatzailea, argitalpen-batzordekideak.

BAT aldizkariaren lehen zuzendaria Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardeggi izan zen, 1990-2000 bitarteko 11 urteetan; bigarren zuzendaria Maria-Jose Azurmendi, 2001-2006 bitarteko 6 urteetan. Azkeneko 4 urteetan, alabaina, 2007-2010 bitartean, ez da zuzendaririk egon, eginkizun horiek —neurri batean behintzat— koordinatzaileek hartu dituztelarik beregain, hau da, Larraitz Garmendiak lehenbizi, Lionel Jolyk ondoren, eta Belen Urangak gaur egun.

Koordinatzailea beti izan du aldizkariak: Begoña Etxebarria lehena, gero urte askotan Imanol Esnaola, Txillardeggi eta ni zuzendari gineneko garaietan. Niretzat laguntza handikoa izan zen zuzendaritza hartzeko trantsizioa erraztu baitzidan (mila esker ba, Imanol). Ondoren Larraitz Garmendia eta Lionel Joly aritu ziren eta gaur egun Belen Uranga da koordinatzaile (eta erdi-zuzendari) aldizkarian (pentsatu nahi dut zuzendaririk gabeko azken urte hauetan izan duzula gertu nire laguntza, Belen).

Argitalpen Batzordea ere badu, jakina, aldatzen joan dena. Batzordea gehienbat unibertsitateko irakasleekin eta euskalgintzako erakundeetako kideekin osatuta egon da. Hala ere, agian honetan aberastea komeniko litzateke. Lehenago ere berritze-asmu hau onartu bagenuen ere, orain ari gara hau premiazkoagoa ikusten, besteak beste, BAT aldizkaria kalitate zientifiko oneko aitortza jaso dezan, eta aldizkari onenen artean lekua har dezan.

### **3. ALDIZKARIAREN EDUKIAZ**

BAT aldizkariaren XX. urteurrena ospatzeko egokia iruditu zait aldizkariaren edukia aztertzea neurri batean behintzat, 20 urtetan zehar bildutakoak gogoratuz. Azterketa horren helburua, alde batetik, esandakoak gaur egun noraino mantentzen diren ikustea da, hau da, bilakaera egon den ala ez ikustea, eta egon bada, noranzko bidean izan den ikusteko: normalizazioaren aldekoa, egoera bere horretan mantentzearen aldekoa, normalizazioaren kontra. Eta bestalde, halako ebaluazio modukoa egitea ere badu helburu azterketa honek, eta gure arteko eztabaidarako hausnarketa edo proposamen batzuk eskaintzekoa ere.

Horretarako ez dut, ordea, orain arteko 75 zenbakiak berrikusiko, nahiz eta BATen historia egitea komenigarri den, jadanik egiten ari den

euskararen historiarekin lotuz, agian. Kasu honetan zenbaki batzuk bakarrik aipatuko ditut, adibide gisa, erdi-zorizko prozedura erabiliz:

- EKB garaiko lehen eta azken zenbakiak, 1. eta 30.;
- SEI garaiko lehen eta azken zenbakiak, 31. eta 52.;
- SLK garaiko lehen eta azken zenbakiak, 53. eta 75.;

### 3.1. EKB garaiko lehen eta azken zenbakiak

#### 3.1.1. BAT 1. Zenbakia (1990): *Hizkuntza perfilak. Elkar hizketa Iñaki Larrañagarekin*

BAT aldizkariaren lehen zenbaki honek bere ibilbidea markatzen du neurri handi batean, eta horregatik azpimarratze berezia egitea egoki iruditu zait ospakizun testuinguru honetan. EKBren SARRERA eta J. L. Alvarez Enparantza Txillardegiri lehen zuzendariaren AURKEZPEN GISA lanek erakusten dute BAT-en hasiera eta ibilbide historikoa. Bertan, *Hizkuntz Perfilak* izeneko DOSSIERRA dago (Mikel Ugalde eta Inazio Agirre), baita Iñaki Larrañagari egindako *Elkar hizketa* ere (Iñaki Uria eta Joxemi Zumalabe), eta bes-telako kolaborazioak (Erramun Baxok, Xabier Falcon, Joxe Manuel Odriozola, Jose Ignacio Ruiz de Olabuenaga eta Txillardegiri). Horiei guztiei, bereziki lehen zuzendariari izan den Txillardegiri gure esker onak ematea ezinbestekoa zaigu orain.

Lehen zenbaki hau berrirakurtzea beharrezkoa da BAT aldizkaria ulertzeko. Hemen, ideia batzuk bakarrik aipatu nahi nituzke, nahiz eta horietako hainbat, jadanik aipatu ditudan Txillardegiri egin genion omenezko 71. zenbakian.

EKBk SARRERARI honela ematen dio hasiera:

“Bat-eginik ari gara; bat-eratu gaitezen’ idatzi zuen norbaitek, denok gogoan dugun ‘Bateginik’ kanpaina haren erdian. Hona hemen orain BAT aldizkaria, Euskararen aldeko mugimendu herritarra sendotzera eta bateratzera datorrena.

... Euskal Herriaren hasieran EUSKARA zegoen Herriaren eratzailer; geroztik Euskarak eman dio izena Herri honi; eta herritarren arteko ezberdintasun, gatazka, kontradikzio eta guzti, euskarak batzen gaituela aitortu ohi dugu sarritan. Ez dugu uste, ordea, Euskara Euskal Herri eta gizarte historikoaz haraindiko ezer denik; alderantziz geure historia egunerokoan egiaztatu beharrea gaude euskaldunon bateratzailea dugula Euskara, geure Herriaren desintegrazioari uko eginez.

... Euskararen monopolizazioaren et manipulazioaren kontrako protesta eginez abiatzen da BAT aldizkaria, aitormen oinarrizko honekin: “Euskaldun —euskal herritar— guztiona eta guztiontzat da Euskara”. Abiaturuan herritar guztiok batzen bagaitu gure hizkuntza nazionalak, guztiok horren berreskurapen osoaren ahaleginean bateratzea du helburutzat BATek. Horretarako lekua ireki nahi du: albiste, azterketa, gogoeta eta kritikarako bateragunea.

Bateragunea izango bada ere, ez da erdigunea aldizkari hau, euskara bera bait da euskaldun bakoitzaren eta euskal elkartearen ‘erdigunea’, Txepetxen hitzez. Erdiguneratze-prozesua da Euskararen berreskurapena eta euskaldunon euskalduntzea. Euskal Herriaren BATA historikoa Euskara da, izan ere.

***Bateragunea izango bada ere, ez da erdigunea aldizkari hau, euskara bera bait da euskaldun bakoitzaren eta euskal elkartearen ‘erdigunea’, Txepetxen hitzez. Erdiguneratze-prozesua da Euskararen berreskurapena eta euskaldunon euskalduntzea. Euskal Herriaren BATA historikoa Euskara da, izan ere.***

**Baina herri-mugimendu horrek jakin egin behar du, ahalik eta ongienik eskolatu eta jantzi. Eta asmo horretan kokatzen da aldizkari hau.**

... Euskararen erdigunerako Herri osoaren bidegintza honetan bateratzeko deia zabaldu nahi du hasieratik BAT aldizkari honek: Kultur indar eta talde guztiak batera, erakunde publiko, pribatu eta herritar guztiak batera... Herritar guztiok batera! Bakoitza bere lekutik eta egoeratik, baina batera!".

### Txillardegik AURKEZPEN GISAn honela dio bere aldetik:

"Aurkezpen gisa Euskal Herriaren etorkizunari dagokionez, eta ideia hau zabalzea eta sustraitzea lortu bada ere, hizkuntza da ardatza. Eta abertzaletasuna gora doanez, gora doaz, era berean, euskaltzaletasuna eta nazio-hizkuntzari buruzko ikerlanak eta gogoetak.

Euskal Herriko fenomenoak, nolana ere, ingurugiro orokorrean kokatzea da. Joan den mendean nagusitu zen utopiar (hizkuntza bakar baten gainean egituratutako mundu batua), beste utopia bat gailentzen ari zaio gaur egun: herri desberdinen elkarte antolatutako den mundu-federazio anizkuna.

Kazetak gaingiroki bederen irakurtzea aski da nazioen pizkunde orokorraren indarra senditzeko: Estonia, Eslovenia, Georgia, Palestina, Moldavia, Kurdistan, Tibet, Lituania, Armenia, Katalunia bera. Eta guztion nazio-hizkuntzaren arazoa, ardatz.

Geronen hiztegiaren bertan sumatzen da joera hazkor hori: hizkuntza borroka, glotofagia, hizkuntza soziologia, soziolinguistika, glotopolitika, hizkuntza plangintza... Hitz-andana oso bat gizarte-hizkuntzaren inguruan.

... Oso kontzientzia urria dago gure artean euskararen erabilpena ezinezko egiten duten baldintzei buruz. Oraindik ere, funtsean, azterketa sozio-politiko-ekonomiko horren beharraz ahazten bide gara maizegi. Zeren-eta, 'de facto', zerk debekatzen du gaur euskararen erabilpena?...

...Gure nazio-hizkuntza berriro Euskal Herrian mintzabide eta oinarri bihurtuko bada, beraz, bi gauza lortu behar ditugu; eta lorpen horretan laguntzekotan sortu da eskuetan duzun aldizkari hau.

Bata, hizkuntzaren alorreko fenomenoak ahalik eta ongiekin ezagutzea

... Bestea, berriz, hizkuntza pizkundean herria bera interesatu gabe, soluziorik ez dagoela sinetsi eta sinestazari behar dugu

... Herriak ez badu nahi, herriak ez badu nazio-hizkuntzaren arazoa bere gain hartzen, jai dago.

Horregatik, herri-mugimenduen zuzperketa guztiz da premiatsua (Québec-en edo Vlaanderen-en ikusi den bezala); eta, alderantziz, herri-mugimenduen ahulezia edo zafaketa (Irlanda, Britainia) guztiz kaltegarria.

Baina herri-mugimendu horrek jakin egin behar du, ahalik eta ongienik eskolatu eta jantzi. Eta asmo horretan kokatzen da aldizkari hau: Soziolinguistikaren eta Glotopolitikaren alorrean azkarki erroturik dauden ideia nagusiak ezaguteraztea.

Agian asmatuko!".

### Iñaki Larrañagari egindako elkar hizketan:

"Euskara beti ezagutu eta bizi izan duen batek galtzeko arriskurik edo beldurrik ez du sentitzen, batetik, eta beste aldetik, hizkuntzari premiarik eta interesik ez dio ikusten, interes handiagoa ikusten dio beste hizkuntzari."

"Zonalde euskaldunenetan kasu gehienetan erdaldunen jarrera indiferentzia-koa ez ezik errezelozkoa ere bada."

"Euskarak ez dauka bere erreproduzioak garantizatzeko edo ziurtatzeko mekanismoak. Erdarak ziurtatuta dauka mekanismo horiek, eta oso ondo arduratzen dira gal ez ditzan eta mantentzen ditzan eta alor berriak sortzen diren heinean irabaz ditzan."

"Ikasketa ez unibertsitarioan ari den ikaslearen %6atik gora oraindik erdal erduetan zebilek; beraz, erdaldun mantentzeko mekanismoak dituk hor funtzionatzen ari direnak".

“Erreproduzio-mekanismoak huts egiten eta galtzen hasten badira eta, azken erreduktoa izan daitekeen familiarena era galtzen bada, hizkuntza horrenak egin du, jadanik ez bait dauka erreproduzio-biderik eta, nik uste, hizkuntza ordezkapenaren problemarik grabeena hori da.”

“Familiako transmisioaren mekanismoa ere modu alarmagarrian joan duk gutxitzen edo galtzen.”

“Bortzirietako eraldunetatik %30 bakarrik da kanpoan jaioa, %70 bertan jaioa eta bertako jendea da.”

“Abertzale izeneko alderdien artean, jokabide guztiak berdin ez badira ere, esan beharra zegoen hizkuntzaren arazoari dagokionez, sakon sakonean, kanpora beste itxura bat agertu nahi izan arren, inhibizio jarrera dela nagusi.”

“Esan beharko litzateke normalizazioa ez dela koofizialtasuna, ez dela legezko izatea, baizik eta berezko definizioak hizkuntzaren nagusitasunaren eta lehentasunaren kontzeptuak dakartzala, eta nolabait, esklusibotasunera daramala.”

“Muga administratibo eta politiko horiek hor daude, kontrolatzen dute eta, azken batean, hizkuntza komunitatearekiko traba eta oztopo gertatzen dira.” “Garbi dago egitura juridiko-legal hau mantentzen den neurrian euskararen normaltasuna ezin dela lortu.”

“Agintariak herritarrei hizkuntza erabiltzea herritarren beraien esku dagoela esaten diete eta hori ez da horrela. Hizkuntza bat erabili ahal izateko baldintza batzu eman behar dira eta agintariei dagokie hain zuzen baldintza horiek jartzea.”

“Memento batean bazirudien euskara beharrezkoa izango zela hemen bizitzeko, baina azken bost urte hauetan ematen du jendea konbentzitu dela euskararik ikasi gabe pasa daitekeela.”

“Euskal Herrian euskararen alde eta euskararen promoziorako inoiz baino gehiago egiten ari duk. Egiten ari den guzti hori ezinbestekoa duk, nire ustez, baina ezinbestekoa bezain eskasa.”

“Orain baditugu baliabideak, baina lehentasunen tranpa segok: urgentzia, lehentasuna eta prioritatea... Eta azken batean prioritate-mundu horretan sartzen garenean galtzaile beti euskara ateratzen da.”

“Elkar kondenatuz eta deskalifikatuz ez gaituk inora helduko. Euskarak guztiok diagu euskararen beharra, Euskal Herri izatea nahi badugu...”

Nire irudiko, gaurkotasun handikoak dira hemen jaso diren ideiak, nahiz eta orain 20 urte esandakoak izan. Eta honako galderak sortzen dira: Nola interpretatu hogen urte pasa eta gero gaurkotasun hori? Noraino egin dugu aurrerantz, noraino atzerantz? Edota, leku berean jarraitzen dugu? Hona hemen gure eztabaidarako lehen galdera.

### 3.1.2. BAT 30. Zenbakia (1999): *Suomieraren normalkuntzaz*

30. zenbakiko DOSSIERRAK FINLANDIAko egoera landu du gai monografiko modura (J.L. Alvarez Enparantza, Andoni Sagarna eta Kenneth D. McRae); GAIK atalean honako artikulua biltzen dira: “Aunitz dakit, bizitzen badakit. Baztan (Nafarroa), hizkuntzaren antropologiatik aztertua: hizkuntzen kategorizazioa komunitate elebidun batean” (Paula Kasares), “Europako Batasunean desabaitailan dauden hizkuntza komunitateak. Hurbilpen kuantitatiboa” (Jordi Bañares), “Katalunia. 1996ko errolda eta hizkuntza” (Institut d’Estadística Catalana), “Eleaniztasuna Israelen” (Bernard Spolsky) eta “EKBren desegitea” (Olatz Osa); ITURRI BILA atalean “Soziolinguistika eskuliburu eginda, katalanenaren lagungarri” (Imanol Esnaola), eta AGENDAn zenbait kongresu edo sinposioren berri eman da.

---

**“Agintariak herritarrei hizkuntza erabiltzea herritarren beraien esku dagoela esaten diete eta hori ez da horrela. Hizkuntza bat erabili ahal izateko baldintza batzu eman behar dira eta agintariei dagokie hain zuzen baldintza horiek jartzea”.**

---

*Non gelditu dira orain 30  
urte “elebitasuna”  
helburua lortzeko ustez  
adostutako legeak?*

Imanol Esnaola koordinatzailearen hitzaurreko ideia batzuk aipatuko ditut ondoren:

“Finlandiari buruzko dossiera egitea erabaki genuenean bi helburu bete nahi genuen. Batetik nazioartean gertatzen ari zenari buruzko dossierren sailarekin jarraitzea, eta bestetik, zuengana hurbiltzea orain artean arras arrotza izan zaigun prozesua, gure herrian suomiera normaltzeko prozesuak guretzat ikasgai ugari zuelakoan”

Egia esanda, bi helburuak ondo lotuta gauzatu dira BAT aldizkarian, bai lehen epe honetan, baita gerora ere.

Suomiera kasuari buruz,

“... suomiera mende honetan galbidean egotetik hizkuntza nagusia izatera pasa da...”

...legeriaren ikuspegitik bi komunitateen arteko “hitzarmena” zer-nolakoa izan den azaltzen saiatzen da. Ez da erraza izan ez, galbidean zegoen suomieraren zatituek bultzakadak zekarren heriotza mehatxua indargabetzea...”

Israel kasua aipatzerakoan,

“... herritarren borondate finkoak gain behar beharrezkoa dela maila ekonomiko, juridiko, politiko nahiz kulturalaren saiatzea hizkuntza gutxitua normalduko bada”.

Kataluniari dagokionean,

“1996an egindako erroldak hizkuntza trebetasunei buruz emandako informazio nagusia bilduz... aski nabarmen agertzen da bertan normalkuntzaren bidean emandako urratsen uztia emankorra gertatzen ari dela”.

Kasu bereziak baino harago joanez,

“Europako Batasunean desabantailan dauden hizkuntza komunitateak ditu jorragai. Europako Batasunaren banderak biltzen dituen hamabost izarra (gaur egun nahiko gehiago direnak) baino askoz gehiago dira hizkuntza komunitateak, horietako gehienak desabantailan daudenak...”

Demolinguistikak eskaintzen duen informazioa laua da eta hizkuntzaren errealtateak, Paula Kasaresek erakutsi bezala, dimentsio anitz badu. Ikuspegi horretatik eginga da Iturribila atalera bildutako lana, Manual de sociolingüística catalana, eta ikuspegi horretatik aztertzen du katalanaren errealtatea”.

“Gure kasura etorri, Baztan aztertzerakoan, esaten da “zeinen konplexua den inkesta demolinguistikoko hutsek sarritan laua adierazten diguten errealtatea. Baztan adibideterako hartuta, ezagutza maila altua izan arren galbidean amiltzeko zorian egoteko zeinen gutxi behar den ikusten lagunduko digu”. Guzti hau ere, orain 11 urte esandakoa bada ere, erabat eguneko delatza iruditzen zait; horrela, 1. zerbakiarekin bezala, antzeko galderarekin etorriko nintzateke 30. zerbakiarekin ere: eta gu zertan ari gara?”

Zerbaki honetan, EKBren desegitea aipatzen da GAIK atalean, EKBren Nazio Batzordeak 1999ko otsailaren 27an hala erabakitzearen ondorioz:

“EKBren helburu nagusiak erdiesten ari dira, arrakastaz gainera. Batetik, euskalgintza osoa edo ia osoa bilduko duen gune bat osatzea lortu da, Kontseilua. Bestetik, EKB bere hastapenetik bultzatzen zuen Plangintza Orokorrean prozesua abian da, Kontseiluaren eskutik aurrera ateratzen ari den Plan Estrategikoa

alegia. Gainera,... euskalgintzatik at, beste sektore batzuetara ere hedatzen ari da, hala nola, tokian tokiko administratziotara, lan mundura, e.a. EKBk bere sorreratik aldarrikatu duen helburua gauzatzen dela ikustea euskalgintza osoaren lorpena da.

Lorpeen hauek eman daitezten EKBren ekarpena ere garrantzitsua izan da, historikoki euskalgintzarentzat funtsezko bilakatu diren beste proiektu batzuk (UEMA eta Euskaldun Egunkaria kasu) aurrera atera ahal izateko egindako ekarpena bezalaxe.

Eragite funtzioa, hots administrazio publiko, erakunde sozial eta politikoei euskararen aldeko urratsak eman ditzaten eragitea, funtsezko egiteko da eta euskalgintzatik erantzun beharrekoa. EKBk zeregin honetan bete duen espazioa garrantzitsua izanik ere, ez da ondorioztatzen bilgune honek jarraitu behar duenik funtzio hori betetzeko... hala ere, beharrezkotzat jotzen da ahal den neurrian EKBk bete duen espazioa hori euskalgintzako beste erakunde batek edo batzuk betetzen jarraitzea...”.

---

*Baina, jakina, tamaina honetako pizkunde batek kontraesanak ekarri ditu. Eta hau guztiz normala da...*

Artikulu bereko ERABAKIAK atalean dio:

“... konfederazio honen ihardura eta geroari buruzko eztabaida eman ondoren eta goian aipatu ondorioetara iritsita, Euskal Kulturaren Batzarrea-Euskalgintzarako Konfederazioa desegiteko erabakia hartu du”.

Zenbaki honetan adierazten den bezala zenbait kasu ezberdin aztertuz, euskara berreskuratzea eta normalizatzea nahi badugu, zeregina Euskal Herriko barne-munduan dago neurri batean, baina baita ukipenezko kanpo-munduan ere beste neurri handian, Espainia eta Frantziarekin lotuta dagoena hain zuzen ere. Honek gogora ekartzen dit Fishman (1991) adituak bere *Reversing Language Shift (RLS)* ereduan barnean eman behar direnak azpimarratzen dituela —gurean ere gehien landu eta hobeto ezagutzen den alderdia—, baina beti ere kanpokoekin adostasun iraunkorra eta ziurra lortu eta gero, gurean behar adinako neurrian lortu ez dena oraindik.

Adibidez: non gelditu dira orain 30 urte “elebitasuna” helburua lortzeko ustez adostutako legeak? Gai honi buruz Fishmanek (2001) zenbait kasutan eredu aplikatu ondoren argitaratutako liburuan beste kasuen artean euskal kasua aztertzen du, “Reversing Language Shift: The Case of Basque” izeneko kapituluan (Azurmendi et al. 2001). Azterketa horretan nahiko ebaluazio pesimista ematen du egileak, kuantitatiboki gehiago lortu dela azalduz kualitatiboki baino. Oso harrigarria da zein gutxitan aipatu izan den lan hori, kontuan hartzen badugu gainera liburu bera (*Can threatened languages be saved?. Reversing Language Shift, Revisited: A 21st Century Perspective*) askotan aipatua izan dela gure artean. Nola interpretatu hori? Antzeko zerbait gertatzen dela esango nuke beste kapitulu honekin ere: “The Future of Basque in RLS Perspective” (Zalbide et al. 2006) Soziolinguistika Klusterrak argitaratutako *The Case of Basque: Past, Present and Future* liburuan (Azurmendi et al. 2006) ebaluazio positiboagoa egiten duena, baina oso gutxitan aipatzen dena baita ere.



**Kanpotarrak harritu egiten dira gure Herri Mugimenduaren indarra ezagutzean (eta bertakook ere, egia aitortzekotan, ez gutxiago! Miraria dirudi. Zinez.**

## 3.2. SEI garaiko lehen eta azken zenbakiak

3.2.1. BAT 31. Zerbakia (1999): Euskararen aldeko gizarte-mugimendua eta EKB, azken 25 urteak gainbegiraturaz

Soziolinguistika Euskal Institutua sortzen erakundeak (SEI) bideratutako lehen zerbakia aztertuko dugu hemen.

Hasierako AGUR GISAKoan Txillardegi zuzendariak dioena ekarriko dut lehenbizi:

“Batera iraganari adio eta geroari agurra baita hau.”

Baina, honako ideioek ere azpimarratu nahi ditut:

“Oso gertakari garrantzitsuak izan ditugu azkeneko bizpahiru urte honetan euskalgintzaren alorrean. Eta aldaketa horien berri ematekotan prestatu dugu ale hau.

Alde batetik, Kontseiluaren sortzeak berak, besterik gabe, gure lanerako ondorio nabarmenak izango dituelako. Eta bestetik EKBren suntsiketak ere, BAT hau EKB zenaren adar bat izanik, guri oso artez berregituraketa ekarriko digulako.

Ale honek, horregatik, balantze eta bilduma kutsua du. Baina, gure ustez, oso dokumentu baliotsua izango da ondoko urteetan Euskal Kulturaren kondaira egiterakoan.

...

EKBren Memoriak, hasteko, erakundeak eta lanak koordinatzeko egindako lan zaila azaltzen digu zehatz-mehatz. “Artikulazioa, koordinazioa, ekintza bateratuak, zerbitzuak, plangintzarako oinarriak”... Eta ahalegin horretan merezimen-  
du aparta dagokio EKBri.

Bergaran orain ia-ia 17 urte sortu zenez geroztik (1983) lan gaitza egin du...

Euskararen Egunak, S.L. Jardunaldiak, Egunkariaren sorrerarako bultzada, liburuak, BAT hau berau 1989az geroztik... harritzeko bultzada egin du Euskal Herriak urte hauetan. Eta 700 Elkarteren laguntzarekin sortutako Kontseiluaren etorreraz, azkenik, eta batasunaren eta koordinaketaren onetan, aurtengo Otsailaren 27an “auto-desagerpena eskaini du, protagonismo usteleki uko egin da. Maizago ikusi nahi genukeena...”

Urte onuratsuak hauek Euskararen Kondairan (UEMA, Euskal Herrian Euskaraz, Abokatu Euskaldunen Elkarte, Kilometroak, AED,...)...

Kanpotarrak harritu egiten dira gure Herri Mugimenduaren indarra ezagutzean (eta bertakook ere, egia aitortzekotan, ez gutxiago! Miraria dirudi. Zinez.

Baina, jakina, tamaina honetako pizkunde batek kontraesanak ekarri ditu. Eta hau guztiz normala da...

Kontraesan iturri nagusia, jakina, hauxe izan da: instituzio ofizialetan parte hartuko, hala ez? Bai politikoetan, jakina; baina baita kulturaletan ere...

AEK/HABE bikotearen barruko tirabirak, adibidez, “paradigmatikoak” dira (modako hitza erabili nahi badugu)... Gauza bera da “euskararekin dirua irabazteko” lotsaz. Zergatik lotsatuko?...”

Egia da Txillardegik dioen moduan, halako miraria dela Euskal Herri Mugimenduen aniztasuna eta indarra XX. mende bukaeran. Miraria dela iruditzen zait niri ere, euskararekiko herri mugimenduak horren ugariak izatea. Baina honako galderak egin nahi nituzke: horrela al da gaur egun ere, 10 urte pasa ondoren? Indar horren eraginak noraino eraman gaitu?

Ebaluatu nahiko bagenu, aurrerantz al doa euskararen normalizazioa? Egoera mantendu egin al da? Atzerantz al doa? Eta euskararen nahikotasunean? Euskal mundu barruan dagoen boluntarismo eta militantzia handiak noraino iristen dira? Eta iraunkorrak izango al dira? Nola interpretatu hori guztia?

Erantzuna euskal munduaren baitan eta ukipenezko kanpoko munduan bilatu behar da, beti bezala. Baina nire ustetan galdera horiei egoki erantzuteko gehiago begiratu behar zaio kanpokoari barrukoari baino. Orain gogoratzen dudan neurrian behintzat, euskararekiko egin behar genuena erabakitzeko orduan, gurean, gehiago azpimarratu da euskal mundua, Euskal Herrian bertan egin behar genuena. Baina Euskal Herriatik kanpo gertatzen denaren eragina gutxiago aztertu da. Eta hori beharrezkoa da hobeto ulertzeko horrenbeste gauza egin ondoren —Euskal Herriatik kanpo ere ezin sinistuzkoak gertatzen direnak—, zergatik orain dugun egoeraraino bakarrik iritsi garen. Esango nuke baita ere, euskararen normalizazio-prozesua errazteko oso gutxi egin dugula bi noranzko harreman horietan, hau da, Euskal Herria eta Estatuen arteko harremanetan, eta baita Euskal Herrian bien interesen artekoan ere.

Orain, maila teorikoan eta enpirikoan euskarari aplikatzeko gure artean ireki dugun hizkuntza-ekologiaren bideak agian erraztuko du kanpokoari leku handiagoa egitea. Honako hau azterketarako, eztabaidarako eta plangintzarako beste proposamen bat izan daiteke.

### 3.2.2. BAT 52. Zenbakia (2004): *Euskara eta etorkinak*

SEIk bideratutako azken zenbaki honetako gai monografikoa XXI. mendearekin batera gertatzen ari den Espainiatik kanpoko immigrazioa da. Eta erantsi zaio aurreko mendeko Espainiatik etorritako etorkinei buruzko beste artikulu bat. Hitzaurrean Maria-Jose Azurmendi zuzendariak adierazitako ideien artean, honako hauek aipatuko ditut ondoren, zenbaki honetako artikulu askotan agertzen baitira.

“Oso eguneko gaia dugu etorkinen errealitatea, nahiz eta aztergai bezala nahiko berria zaigun; nonahi topatzen ditugu etorkinei buruzko aipamenak eta lanak: egunkarietan, irratiarian, telebistan, unibertsitateetan, kongresu eta mintegietan, eta abar. Alderdi ezberdinetatik azter daitezkeen aztergaia da, bestalde; zenbaki honetan, espero daitezkeen bezala, euskararen aldetik aztertuko da, horretarako gehienbat hezkuntza munduaren gaian txertatuz, agian, gurean hezkuntza sistemaren bitartez ziurtatzen delako euskararen ikaskuntza eta transmisioa.

Bertan jasotzen diren artikulak egile mota ezberdinenak dira: administraziokoa, ikastolen elkartekoa, unibertsitateko irakasleena, sindikatu batekoa, etorkinen inguruko elkarte batekoa (SOS arrazakeria elkartekoa) eta, beste askotan bezala, Euskal Herriatik kanpoko aditu batena ere bai (Kataluniakoa, oraingoan). Horrela ikusmira ezberdinak erabiltzea nahi izan dugu, aztergaiak duen konplexutasuna hobeto kontuan hartzearen...”.

Estatutik kanpoko etorkinei buruzko gaia oso aztergai berria da gure artean, azken hamarkadako fenomeno bat delako batik bat. Eta horregatik, ez

---

*Indar horren eraginak  
noraino eraman gaitu?  
Ebaluatu nahiko bagenu,  
aurrerantz al doa  
euskararen  
normalizazioa? Egoera  
mantendu egin al da?  
Atzerantz al doa?*

---

***Artikulu gehienetan  
ideiak galderen bitartez  
adierazten dira, bai  
teorikoki  
mintzatzerakoan eta  
baita esperientziaz  
aritzzerakoan ere.***

da harritzekoa askotan zalantzak sortzea. Esate baterako, artikulu gehienetan ideiak galderen bitartez adierazten dira, bai teorikoki mintzatzerakoan eta baita esperientziaz aritzzerakoan ere. Gainera, zenbait galderek geure buruari gogoeta egiteko gonbidapenak dirudite.

Etorkinen gaia ez da arazo moduan aitortzen baizik eta errealitate aberats moduan, hau da, errealitate aberatsa izan beharko lukeela aldarrikatuz; ezberdintasunaren eta aniztasunaren onura printzipio teorikotzat hartzen da. Enpirikoki, ordea, aberastasun hori gehiago da aldarrikapena bizi-tzen den errealitatea baino, oraindik behintzat. Gainera, etorkinak inguruaren arabera aurkezten dira, harrera-gizartearen eta etorkin-gizartearen bitarteko zerbait bezala. Izan ere, harrera-gizarteak egin behar duena etorkin-gizarteak egin behar duena adina edo gehiago izan behar duela aipatzen da, neurri batean harritzekoa badirudi ere.

Askotan errepikatzen den beste ideia bat da etorkinei eskatu behar zaienaren ingurukoa, bai euskararekiko eta baita beste edozein alderdikiko ere, jakinik, eurak direla harreman honetan egoera zailenean daudenak. Adibidez, zenbateraino eskatu behar zaie euskalduntzea bertako asko euskalduntzen ez den bitartean?

Integrazioaren beharra erabiltzen da beste printzipio teoriko moduan, integrazioa elkarren arteko bi noranzkotan ulertuta: etorkinek egin behar dutena, haiei eskatu behar zaiena —euskararekiko adibidez— baita harrera-gizarteak egin behar duena ere.

Artikuluetan integrazio bidea errazteko eskolaren eginbeharra jasotzen da, euskarazko D eredua eskainiz, eta ondoan etorkinen ama-hizkuntza ere ekintza batzuetan erabiliz, esaterako, hartu-eman gisa. Bestalde, integrazioaren bitartez —eta ez asimilazioaren bitartez— etorkinak aberastasun moduan har daitezke. Horretarako, beste lurralde batzuetako esperientziak aztertzen dira, esate baterako, Kanada eta Québec, Alemania, Ingalaterra, Frantzia, Holanda eta Kataluniako esperientziak. Horrek esan nahi du nahiko ikuspegi irekiarekin aztertzen ari garela etorkinen fenomeno, baita nahiko zentzu kritikoan ere, kanpoko esperientziak gehiago erabiltzen direlako eztabaidatzeko adibide moduan, besterik gabe berdin hartzeko baino. Berdintasunaren printzipioarekin batera ezberdintasunaren printzipioa ere aztertzen da. Hau da, onartzen da etorkinek dakartzaten ezberdintasunak onartu behar direla aberastasun-iturri modura. Bestalde, berdintasunaren arabera, etorkinak pareko moduan hartu behar dira edozein arlotan: hezkuntzan, lan-munduan, etxebizitzak lortzerakoan, etab.

Gure artean gehien landu den arloa hezkuntzarena da, esparru horretan —eta euskararen inguruan— ari baitira eztabaida eta esperientzia berrienak egiten, bai hurrekin eta baita helduekin ere. Eztabaida orokorren inguruan daude, adibidez, ghetizazioaren kontrako joera indartzearen nahia eta euskarazko D ereduen beharra. Esperientzia berrien inguruan, berriz, ikasle etorkinen gurasoekin zenbait ekimen jadanik jarri dira abian eskolaren eta gurasoen arteko harremanak indartu nahian. Horretarako,

hainbat hizkuntzatan material idatzia prestatu da: euskaraz, espainieraz, frantsesez, ingelesez, arabieraz, txineraz, etab. Euskalduntzearen gaiarekin lotuta dagoen teorizazioa oraindik ere elebitasunarena da, ukipen tradizionalako hizkuntzen arteko elebitasuna, hain zuzen. Baina bada garaia elebitasunarekin loturiko teorizazioa ere kontuan hartzekoa, bai ukipen tradizionalarekiko —euskararen eta espainieraren artean—, baita etorkinen hizkuntzekiko ukipen berrien egoerarekiko ere. Horri guztiari buruzko teorizazio-prozesua irekia dugula dirudi.

Euskalduntzearen arloan tradizionalaki erabili ohi den beste ideia bat honakoa da: euskalduntzea aukerazko edo borondatezko prozeduraren bitartez lortu behar da eta ez derrigorrezko neurriekin. Badirudi ideia bera erabili nahi dela etorkinen inguruko egoera berrian ere. Ez dago batere argi zergatik behar duen horrela izan, ez orain arte, ezta orain bertan ere, batik bat, betebeharrez betetako mundu honetan. Baina horrela eusten zaio ideia horri gurean. Euskalduntzea ez al litzateke izan behar eskubide bat eta betebehar bat? Agian, gai hau eztabaidagai dago, edo egon behar luke, oraindik ere gurean.

Fenomeno hauek lantzen direnean askotan ondorengo ideiak aipatzen dira: sentimenduak kontuan hartu beharra, afektibitatearen garrantzia, anomian ez erortzea, aukerakoa izatea, borondatez lortzea, eta abar. Hau da, soziologiaren ondoan gizarte psikologiaren beharra ere aitoritzen da.

Aniztasunaren aukerarekin eta ezberdintasunaren aberastasunarekin lotuta globalizazioa eta lekuan lekukotasunaren arteko gaia ere eztabaidatzen da. Kontraesankorrak direla badirudi ere, biak ager daitezke batera. Baina testuinguru honetan arazoa da jakitea posible izango ote den etorkizunean hizkuntza-aniztasuna gordetzea eta euskara bezalako hizkuntza menpeko eta gutxiagotuak mantentzea eta garatzea.

Aurreko galderari erantzunez zenbaki honetan gaitasun politikoaren beharra aipatzen da, gaur egun estatuek duten gaitasun politikoa, adibidez. Egia da liberalismoaren pean estatuen botere politikoa aldatzen eta ahultzen ari dela, baina hala ere oraindik botere maila nagusia estatuetan dago (maila politikoan eta kulturalen, hizkuntzen gaietan, eta neurri handi batean maila ekonomikoan ere). Gauzak horrela, ez da harriztekoa euskararen alde argi egiteko Euskal Herriarentzat estatu maila aldarrikatzea. Izan ere, badirudi zenbait diskurtso berrituko, arazo bukatuko, gauza argituko eta ekintza planteatuko lirakeela Euskal Herriak bere burujabetza izango balu! Zergatik ez hori bilatu? Non dago arazoa?

Aurreko adibideek nahiko argi uzten dute zenbaki honetako gai monografikoaren aztergaiaren eta artikuluen garrantzia non dagoen: teorizazioan, ideologian, inizatiba berrietan, galderetan, ikasi nahian, eztabaidatu beharrean, adostasuna lortzean, autokritiko izatean, eta abar. Gaur egungo argazkia artikuluen horien arabera eman beharko bagenu ez litzateke erraza izango: Etorkinen fenomenoari buruz ezagutza nahikoa ba al dugu? Ahalegin nahikoa egiten al dugu? Egiten dugunari buruz nahiko

---

*Integrazioa elkarren arteko bi noranzkotan ulertuta: etorkinek egin behar dutena, haiei eskatu behar zaiena - euskararekiko adibidez - baita harrera-gizarteak egin behar duena ere.*

**Arazoa da jakitea posible izango ote den etorkizunean hizkuntza-aniztasuna gordetzea eta euskara bezalako hizkuntza menpeko eta gutxiagotuak mantentzea eta garatzea.**

erantzun jasotzen al dugu? Zer da azken finean nahi dena eta itxaroten dena? Edo lehen pertsonan esanez, nahi duguna eta itxaroten duguna?

Horrela bada, gure euskal testuinguruko EAEan, etorkin berrien fenomeno nahiko berria izateaz gain, “gai emergente” bezala ageri zaigu, ideia berriez beteta baina baita zalantzaz eta kontraesanez beteta ere. Gaur egun, sei urte pasa ondoren, antzera gaudela esaten ausartuko nintzateke? Gure ikerketa-taldeko lanetan, 2000. hamarkadan etorritako etorkinak aztertzerakoan, oso egoera konplexua aurkitzen da, zeren jatorrizko talde etniko ezberdinek ez dute gauza bera nahi bizitzako esparru ezberdinetan (lan-munduan, familian, gizarte-sareetan, erlijioan, ohituretan, hizkuntzetan, identitateetan). Antzeko emaitzak ikusten ditugu beste argitalpen batzuetan ere (Berasategi et al. 2009, Echepeleleku 2010; Etxepeleleku et al. 2009, Larrañaga et al. 2010). Harrera-gizartean ere joerak ezberdinak aurkitu dira esparru ezberdinekiko (Azurmendi et al. 2008a,b, 2009; Larrañaga et al. 2009, 2010). Hau da, nahiz eta harrera-gizarteak integrazioa bultzatu nahi izan —teorian behintzat, eta praktikan ere neurri handi batean—, etorkin-taldeen integrazioa nahi dute lan-mundurako eta probetxuzko onura sozialetarako gehienbat, baina nahiago dute bananduta geratzea bestelako esparruetan. Euskararekiko ere, egoera ez dirudi oso ona, izan ere, etorkin-talde batzuk zalantza nahikorekin agertzen dira, eta beste batzuk, espainierarekin nahikoa dutela defendatuz, kontrako jarrerarekin. Erakunde mailan eta baita unibertsitateko ikerketetan ere gai hori asko aztertzen ari den arren, esango nuke oraindik aztertzeiko asko dagoela, eta adostasun zabal bat lortu beharrean gaudela. Berrito ere, hemen dugu premiazko aztergai baterako beste proposamen bat!

### 3.3. Soziolinguistika Klusterreko garaiaren hasiera

#### 3.3.1. BAT 53. Zenbakia (2004): Euskararen bilakaera azken ikerketen argitan

Soziolinguistika Klusterraren garaiko lehen zenbakia izan arren 53.a zenbakian ez da jasotzen horren inguruko aipamenik, baina, argitaratu berri den *Soziolinguistika Eskuliburuan* (2010) Klusterraren eginbeharraren inguruan honako hau irakur daiteke Jone M. Hernández-ek idatzitako kapituluaren (338 or.):

**“Soziolinguistika Klusterra:** soziolinguistika eremuko eragileen klusterra da. 2004an sortu sen, ezagutza soziolinguistikoaren ikerketan, zabalpenean eta aplikazioan dauden gabezi eta beharrei dinamika berri batekin erantzuteko. Euskal Herrian hizkuntza-normalizazioaren prozesuan inplikaturik dauden erakunde eta taldeentzat (pribatu, publiko zein gizarte-mailakoak) datuak, metodologiak eta bestelako materialak eskaintzeko egitasmoak lantzen ditu. Bere misioan esaten den bezala: Soziolinguistika Klusterraren misioa euskararen normalizatorako soziolinguistika ezagutza garatzea, zabaltea eta horren inguruko interesa piztea da. Horretarako, baldintza egokiak sortuko ditu, esparru teoriko eta aplikatuaren arteko zubiak eraikiko ditu, eta arloko eragileekin hausnarketarako

zein lankidetzarako bilgune-sareak osatuko ditu, Klusterrak, beraz, lan-ildo garrantzitsuenetarikoa bat du ikerkuntza, eta bertan berritzea (arlo metodologikoan ere) bere helburu nagusien artean dago”.

Zenbaki honetako DOSSIER atalean 8 artikulua jasotzen dira, zein baino zein interesgarriagoak, lehen zazpiak euskararekikoak eta 8.a katalanari buruzkoa. IRITZI-ARTIKULUen atalean, berriz, 10 lan biltzen dira, erdiak euskalgintzako erakundeek prestatuak eta beste erdiak banakako adituek. Banaketa hori bera sinbolikoa da, mota guztietako artekotasuna delako euskararekiko bultzatu behar duguna (aditu, erakunde eta instituzio-arteak, diziplina ezberdinen arteak, teoria, metodologia eta aplikazio ezberdinen arteak, e.a). GUREAN atalean artikulua interesgarri bat topatzen dugu familia bidezko hizkuntza-transmisioari buruzkoa, hain zuzen. Ondoren, HITZAURRE GISAn esandakoetatik ideia batzuk aipatuko ditut.

“Euskararen erabilera dugu oraingoan zenbakiaren aztergaia. Askotan esan bezala, zenbaki honetako zenbait artikulutan ere esaten den bezala, euskararen erabilera da kezka nagusia euskararen normalizazio prozesuan, erabileraren mota eta neurria direlako normalizazio mailaren adierazpen argia... berriro ere erabileraren gaiari heletzea beharrezkoa iruditu zaigu, horri buruz argitasuna handiagoa lortzea esperoz... Gure testuinguruan oso ezagunak dira eredu teoriko batzuk; adibidez: 1) Sánchez Carrión-ek (Txepetx) (1987) adierazitakoa: erabilera ezagutzarekin eta motibazioarekin lotzen duena; 2) Fishman-ek (1991) zabalduakoa: erabilera maila funtzional ezberdinekin lotzen duena, gertutasuna funtzioaren eta mailaren erdigunetasuna (familia, auzotasuna, eta eguneroko komunitatea) azpimarratuz; 3) Alvarez Enparantzak (Txillardegia) (2001) aurkeztutakoa: entropia teoria fisikoa erabiliz, eredu matematikoa proposatu duena, erabilera ezagutzarekin, hizketakide tamainarekin, eta leialtasunarekin edo atxikimendurekin lotzen duena. Nahiko ezagunak ditugu eredu teoriko-enpiriko batzuk ere, hala nola: A) Martínez de Lunak eta lankideek (2000) proposatutakoa, gehienbat ikuspegi soziologikoa erabiliz: erabilera hiru faktore konplexu hauen arabera azaldu litzateke: gizartearen egitura (eremuak eta erakundeak), harreman sareak (egoerak), eta norbanako ezaugarriak (gaitasuna eta motibazioa); B) Garciak (2000) lortutakoa, gehienbat ikuspegi psikosoziala erabiliz: erabilera bi motako faktoreen arabera azalduz: testuinguruko euskararen presentziaren dentsitatea eta norbanako ezaugarriak (gaitasuna eta euskal identitatea) (Arratibel et al. 2001). Oso ezagunak ditugu zenbait ikerketa deskriptibo ere, zenbait aldagai soziodemografiko aztertuz (adina, sexua, euskara ezagutza maila, jatorri geografikoa, jatorri linguistikoa, eta abar), horien artean: a) Euskararen Jarraipena III, Eusko Jaurlaritzak (2001) zuzendutakoa; b) Kale erabileraren IV. Neurketa, SEI elkarteak (2001) bideratutakoa (BAT Soziolinguistika Aldizkaria 43., 2002); c) EUSTAT bezalako Estatistika Institutuek lantzen dituztenak; d) SIADECO bezalako erakundeek aztertzen dituztenak; e) ikerketa partzialagoak direnak: sektorialak, udaletxetakoak, eremukakoak, eta abar. Hauetatik batzuk zenbakian jasotzen diren artikuluetan aipatzen dira; beste batzuk, ordea, ez”. (Errepasso orokorra modukoa eginez).

“Aipatutako ikerketetan badirudi emaitza batzuk errepikatzen direla, hau da, euskararen erabilera azaltzeko beharrezko ezaugarri batzuk bete behar direla; adibidez: 1) testuinguruarekin zerikusia dutenak: euskararen eta euskaldunen presentzia orokorra; 2) norbanakoarekin zerikusia dutenak: gaitasuna, motibazioa, eta euskal identitatea; 3) norbanakoaren eta gizartearen arteko sarea, gehienbat gertuko sarea edo euskaldunen presentzia zehatza, aurreko bi ezaugarrien artean zubia eginez. Aipatutako ezaugarri hauek konplexuak dira eta horrela hartu behar dira; adibidez, gaitasuna esaten denean, badakigu beste ezaugarri zehatzago batzuen ondorio dela, lehen hizkuntza edo hezkuntza erabiltzeko hizkuntza euskara izatearena, adibidez. Hau guztia jakitea asko da jadanik, zenbait plangintza eta politika martxan jarri daitezkeelako: ezaugarri hauek guztiak landuz, euskararen erabilera bultzatzeko”.

## ***Euskalduntzea ez al litzateke izan behar eskubide bat eta betebeharrak?***

**Gure artean ireki dugun  
hizkuntza-ekologiaren  
bideak agian erraztuko du  
kanpokoari leku  
handiagoa egitea.**

...

DOSSIER atalean azken artikulua Kataluniatik datorrigu, beste askotan bezala katalanen ikuspegia ere jaso nahi izan dugu, aberatsa izan dena, oraingoan, gehienetan bezala. Azpimarratze bereziak ikusten ditugu honetan: 1) bai teoriakoki, hizkuntzaren azterketa bere osotasunean hartzerakoan: A) hizkuntzaren sistema eta gramatika, B) jabekuntza-ikaskuntza eta gaitasuna, C) erabilera, D) ideologiak-jarrerak-irudikapenak; 2) baita enpiriakoki ere, adibidez hizkuntza eta hizkuntzaren erabilera ere eskaintza-eskari legearen menpeko moduan kontsideratzen direnean, edo balore ekonomiko moduan”.

Badirudi, ordea, oraindik ere mota guztietako ikerketa gehiagoren beharrean gaudela, ez bakarrik gure egoera hobeto ezagutzeko, baita eza-gutzak hobeto aplikatuz plangintzak eta politikak ziurtasun handiagoarekin proposatzeko eta martxan jartzeko ere. Hori horrela, zenbaki honetako zenbait artikuluk horixe dute helburu: orain arteko ezagutza areagotzea emaitza berriak eskainiz. Modu horretan, aldizkariak bere ibilbide akumulatiboa jarraitu nahi du eta aurreko jakintzarekin lotuz, ezagutza berriak eman. Horrela gerta dadila, gerora ere! Hala ere, ez ote da gure hutsune handiena egindako ikerketa ugariak esaten dutena gero aplikatzen ez asmatzea? Zergatik horrela?

### 3.3.2. BAT 75. Zenbakia (2010): Euskararen presentzia unibertsitatean

Zenbaki honetako DOSSIER atalean euskararen egoera aztertzen da Nafarroako Unibertsitate Publikoan, Euskal Herriko Unibertsitatean, Iparraldeko unibertsitateetan eta Mondragon Unibertsitateko HUHEZIn; ez dira agertzen, tamalez, Deustuko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitatea eta Udako Euskal Unibertsitatea (UEU) gai bereko 50. zenbakian izan zirenak. Horiez gain, beste bi artikuluko ere biltzen dira, euskararekiko ekonomia eta komunikazioa landuz.

GUREAN atalean bi artikuluko aargitaratu dira Soziolinguistika Klusterrak antolatutako “Hizkuntzen Ekologia eta Garapen Jasangarria” izeneko bi saioen inguruan. Saio horiek 6 komunikazio jaso zituzten Eusko Ikaskuntzaren XVII. Kongresuaren GLOBALIZAZIOA izeneko atalean (Gasteiz, 2009ko azaroaren 18-20). Lehen saioko bi komunikazioak Iñaki Martínez de Luna eta Itziar Idiazabal adituek eman zituzten. Bi egile horien ideia nagusiak Maria-Jose Azurmendik “Hizkuntza-ekologia eta jasangarritasuna, Globalizazioan: euskarari begira” artikuluan bildu zituen. Bigarren saioko lau komunikaziokoak, berriz, “Hizkuntza kudeaketa enpresetan, globalizazio aroan: Lau enpresetan dinamikak, ikuspegiak eta posizio berriak” izenburupeko artikuluan bildu ziren (Hermosilla 2010). AIPAMEN BIBLIOGRAFIKOAN, berriz, “Hezkuntza eleanitza bidean: euskal hezkuntza, nazioarteko ikuspegitik begiratuz” lana dator, argitalpen berri baten aurkezpena egiten duena.

Zenbaki hau gertuagokoa denez, ideia gutxi batzuk soilik aipatuko ditut hemen.

HITZAURRE GISArak hurbilduz, Pablo Sotés irakasleak horrela dio:

“BAT Soziolinguistika aldizkariaren zenbaki honetan, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta Nafarroako Unibertsitatearen artean 2009ko irailaren antolatutako “Euskararen Presentzia eta Erabilera Unibertsitatean: Elebitasunetik Eleaniztasunera” udako ikastaroa dugu abiapuntu. Lehenbiziko aldiz egin da ikastaromota hau: alde batetik, Nafarroako Unibertsitateen udako ikastaroen barruan euskaraz eskaintzen den lehena delako eta, bestetik, bi unibertsitateen artean antolatzen den lehen udako ikastaroa ere badelako. Bere helburua, Europako Unibertsitate Eremuari egokitzeko asmoz, komunitate elebidunetan hizkuntzek bizi duten egoera aztertzea izan da.

Ikastaro honen lehengo xedeari helduz, euskararen eta zientziaren arteko harremanak uztartu nahi izan dira. Helburu horrekin, zientzia arloan euskara transmisio-hizkuntza gisa aztertzeke zientzia-eremu ezberdinetan euskaraz egiten den dibulgazioa aztergai hartzen da”.

Hemen adierazten denaren artean azpimarratu nahi nuke Nafarroako bi Unibertsitateen arteko harremana, harreman positiboa eta euskararekiko irekia, dirudienez. Zorionak bada, eta aurrera horrela!

Gai honen inguruan UPV/EHUari buruz ere mintzatzen da, eta honakoa esaten da

“... Plan honen arabera, eleaniztasuna hizkuntza bakoitza funtzio ezberdinetarako erabiltzearen printzipioan oinarritu behar da, eta, beraz, unibertsitateak hizkuntza bakoitzak bere testuinguruan duen erronkari aurre egin behar dio”.

Azken hori, nire ustez, anbigua eta zalantzakoa da. Adibidez: hori bera esan al daiteke Madrilen? Ez, zeren espainiera esparru guztietan erabiliko da, baita unibertsitatean ere, eta beste hizkuntzek —ingelesa adibidez— funtzio berezi batzuk beteko dituzte. Hau da, bertako berezko hizkuntza, euskara gure kasuan —edo agian euskara eta espainiera oraingoz?—, denetarako baliagarria izan beharko luke —Madrilen espainierarekin gertatzen den antzera— eta beste hizkuntzak funtzio berezietarako erabili, ingelesa unibertsitate-funtziotarako, adibidez. Baina hau bestelako printzipioa da. Hona hemen eztabaidarako beste gai bat.

Berriro ere ikusten da Euskal Herriko Unibertsitatea dela euskal testuinguruko artean garatuen dagoena euskararekiko eta eleaniztasunarekiko. Ikusten da 2004tik 2010 bitartean, bilakaera positiboa izan duela neurri handian UPV/EHUko Euskararen Erabilerearen Normalizaziorako Plangintzak (1990, 1999) eta UPV/EHUko Plan Gidaria (2007) izan dituelako, eta horrela erraztu delako egungo Errektoregoaren barruan lehen Euskararako eta Eleaniztasunarako Errektoreordea izatea, eta baita lehen Eleaniztasun Programa martxan jarzea ere. Horrela, Jon Irazusta Errektoreordeak ondorio gisa honakoa dio:

“UPV/EHU sortu zenetik bere jardueretan euskararen erabilera sustatzeko ahalgin berezia egin du. Zenbait esparrutan lortutako emaitzak oso onak dira, besteak beste, graduoko eskaintzan edo AZPko langileen hizkuntza-gaitasunean. Aldiz beste esparru batzuetan egiteko lan eskerga dago. Datozen urteetan graduondokoetan, doktoregoan eta jakintzaren zabalkundeetan lan berezia egin behar dugu. Horretarako garrantzitsua izango da euskara erabiltzen dugun unibertsitateen eta beste erakundeen arteko lankidetzak”.

**2000. hamarkadan etorritako etorkinak aztertzerakoan, oso egoera konplexua aurkitzen da, zeren jatorrizko talde etniko ezberdinek ez dute gauza bera nahi bizitzako esparru ezberdinetan (lan-munduan, familian, gizarte-sareetan, erlijioan, ohituretan, hizkuntzetan, identitateetan).**



---

**Ez ote da gure hutsune handiena egindako ikerketa ugariak esaten dutena gero aplikatzen ez asmatzea?**

Hau da, lortutakoa eta gabeziak aipatzen dira, eta artekotasuna azpimarratzen da.

Garrantzi berezia emango nieke hizkuntza-ekologia gaiarekin lotzen diren bi artikuluei, besteak beste, azken aldian gure artean irekitzen ari den teorizazio eta praktika berriek eredu horretako bideei jarraitzen dietelako, neurri batean.

Lehen artikuluan hizkuntza-ekologia eredu berrizaitzat hartzen da hizkuntza-ukipenaren teoria orokorraren baitan. Kapitulu honetako *Ondorioak* irakurtzera gonbidatzen zaituztet esaten diren guztiak gure arteko eztabaidarako apartak direla iruditzen zaidalako, bai “ahuleziak eta mehatxuak” azaltzen direnean, eta baita “indarguneak eta aukerak” aztertzen direnean ere. Adibidez, “sozializazio mota berria” aztertzerakoan, Bauman-i (2007) jarraituz honakoa esaten da:

“giza portaerako eremuak geroz eta handiagoak direnez, antolamendu, gainbegiratze eta zaintza sozialetik libratu dira, baita edozein autoritatek ofizialki egin dezakeen onartzetik edo zigortzetik ere. Horrela, lehen sozializatzen ziren zenbait ardura, orain norbanakoarengan jartzen dira... Neurri handi batean, estimulazioak hertsadura ordezkatzen du, erakargarritasunak betebeharra ordezkatzen du, sare sozialak eta publizitateak zaintza ordezkatzen du, eta nahi edo behar berriek erregulazio normatiboa ordezkatzen du”.

Noraino izan daiteke egia hemen esandakoa? Hala balitz, noraino hobe litzateke? Egungo ideologia hau noraino da denontzat aplikagarri? Eta gai guztietan?

Artikulu berean argitzera ematen diren UNESCOk gure artean egiten dituen azterketak ere aipagarriak dira oso. Eta antzera gertatzen da bigarrenarekin ere, teorian esandako zenbait ideia lan-munduan nola aplika daitezkeen eta aplikatzen diren ikusteko aukera aparta ematen baitu artikulua.

## 4. AZKEN HAUSNARKETAK

Orain arte esandakoak kontuan hartuz, azken hausnarketa bat egin nahi nuke. Horretarako, ELEBITASUNA eta ALEANIZTASUNAREN gaiak aukeratu ditut, alde batetik, azterturiko BAT zenbakietan errepikatzen direlako, eta bestetik, gaur egun askotan aipatu eta aztertuak izanik, etorkizun hurbilean ere aztertzen jarraituko direlako.

### 4.1. Elebitasuna

Gai honi buruz, 1970 hamarkadan jadanik idatzi nuen “Elebitasuna” / “Bilingüismo” izeneko kapituluak *Euskararen Liburu Zuria / El Libro Blanco del Euskara* argitalpeneko 5. atala (SIADCO 1977), eta gerorago ere hainbatetan. Duela 35 urte idatzitakoa berrirakurtzerakoan zenbait gauza oso gaurkoak direla, eta antzera esango nituzkeela iruditzen zait, nire ustez, gure zori txarrerako.

BAT aldizkariko 1. zenbakiko elkarrizketan adibidez “Elebitasuna” soilik erabiltzen bada ere, “elebitasun sozial” modura hartu behar da, ez “elebiduntasun indibidual” bezala. Antzeko fenomenoak badira ere, ezberdintasun handiak dituzte, zenbait adituk aspaldian esan duten bezala (Mackey 1976; Hamers et al. 1983, 1989, 2000;...), eta horrela erabiliko dugu orain hemen.

Nahiz eta elebitasunari buruzko diskurtso ezberdin asko egon, baita ederrak izan ere askotan, azken 35 urte hauetan zenbait problema dituzte. Esate baterako, bi fenomenoak —elebitasun indibiduala eta elebitasun soziala— antzeko galderekin lotzen dira, tipologia antzekoak erabiltzen dira, bere iraunkortasun— eta jasangarritasun-posibilitateak antzeko anbiguotasunean ikusten dira, nahiak, ahal direnak eta ezinak bereizten dira, ikuspegi optimistagoa teoriarik eta pesimistagoa praktikan mantentzen dira. Modu bertsuan instituzio ofizialak, erakunde sozialak, talde sozialak eta pertsonak bereizitako azterketa eta aplikazio-maila antzekoak erabiltzen dira, eta ideologiaren eragina modu berdintsuan azpimarratzen da. Maila teorikoan bereizi eta lotu beharreko alderdiak —elebitasuna eta diglosia, elebitasuna eta hizkuntza-ekologia,...—, eta maila praktikoan bereizi eta lotu beharrekoak ere —euskararen ezagutza eta erabilera, euskararekiko funtzioak, azpi-lurralde soziolinguistikoak, gertuko eta urrutiko eremuak, eremu pribatu eta publikoak,...— antzera lantzen dira, eta baita berrikuntza teorikoak eta praktikoak sortu beharra.

Orokorrean, iruditzen zait esandako horiek guztiak honako lau eredu teorikotan banatzen direla, ukipenezko gutxiagotu+gutxitu+menpeko hizkuntzarekiko, euskararekiko gure kasuan, beti ere asko laburtuz eta sinplifikatuz:

1. elebitasun egonkorra, nahiz eta orekatua eta simetrikoa ez izan, euskararen kontra bada ere. Posible da eta hori da helburua;
2. elebitasun egonkorra, bakarrik orekatua eta simetrikoa izan daiteke. Posible da eta hori da helburua;
3. elebitasun egonkorra, nahiz eta orekatua eta simetrikoa ez izan, baina bakarrik argi euskararen aldekoa bada. Posible da eta hori da helburua;
4. elebitasun egonkorra, edozein motatakoa dela ere: ez da posible, beti gertatuko delako elebakartasun arteko trantsiziozkoa.

Honen aurrean zenbait galdera datozkigu. Adibidez, orain dugun 1. ereduarekin noraino joan gintezke? Eta noiz arte izango da iraugarri? Posible izango ote da eredu horien artean bilakaera egitea? Baita 4. ereduraino iristea ere?

Euskararen berreskuratzearen eta normalizatzearen alde gaudenok gehienetan “elebitasun orekatua eta simetrikoaren” ereduak aipatu izan dugu helburu bezala, horrela, euskara izan daitekeelakoan hizkuntza normala bere lurralde osoan. Horrek ekarriko luke Euskal Herrian nahikota-

---

*Azpimarratu nahi nuke Nafarroako bi Unibertsitateen arteko harremana, harreman positiboa eta euskararekiko irekia, dirudienez.*

---

***Euskararen berreskuratzearen eta normalizatzearen alde gaudenok gehienetan “elebitasun orekatua eta simetrikoaren” eredia aipatu izan dugu helburu bezala, horrela, euskara izan daitekeelakoan hizkuntza normala bere lurralde osoan.***

sunez funtzionatzeko gai izatea, bere iraunkortasuna eta jasangarritasuna lortuta, gutxiengo eta menpeko hizkuntzen problemak eta gatazkak gaindituta izatea, eta abar. Baina helburu horrekin erkatuz, egungo egoera oso kaskarra da, besteak beste, egoera onena duen EAEan euskaldun elebakarrak desagertu direlako (eta hau datu txarrenetakoa bat da), euskaldun gutxiak elebidunak garelako, onenean gutxi gora-behera elebidun aktiboak %25 eta pasiboak beste %25 garelako, eta espainieradunak berriz %50 direlako.

Egoera kaskarra da baita ikuspegi historikotik ere. Kontuan hartzeko hainbat datu honakoak dira:

1. XIX. mende bukaeran, populazioaren %85 inguru euskalduna zen. Horietatik erdia edo gehiago euskaraz elebakarrak ziren, eta espainiera sartzen ari zen hizkuntza zen.
2. Frankismo garaian lortu zen ia oraingo egoerara iristea, hau da, 70 urte inguru behar izan zen horretarako.
3. Eta frankismoaren ondoren, azkeneko 30 urteetan, euskararen normalizazio-prozesua ireki zenetik gaurdainoko epean aurreratu duguna noraino iristen den denok ezagutzen dugu.
4. Gerora begira ere, oraingo egoera politiko-juridiko eta ideologikoa mantentzen bada ez dut ikuspegi optimistarik. Horrela ba, teorian litekeena ikusten bada ere, praktikan ezinezkoa gertatzen ari zaigu. Are gehiago kontuan hartzen badugu —dakigun neurrian— munduan zehar inoiz ez dela egon “elebitasun orekatua” —elebitasun geopolitiko eta sozialari buruz ari naiz, ez elebidutasun pertsonalari buruz—, ez historikoki ez sinkronikoki ere. Gaur egun ere ez da horrelakorik ezagutzen, are gutxiago gure mendebaldeko mundu garatu honetan, edo, konkretuago, Europan.

Horregatik, enpirikoki, edozein motatako elebitasuna —baita elebitasun orekatua eta simetrikoa ere, edo elebitasun diglosikoa, ...—, trantsizioko egoera da, maila geo-politiko batean (Azurmendi, 1977, 1988, 1998) bi elebakartasun sozialen arteko trantsizioa, gutxienez orain arteko boterea, ideologia eta antzeko eragileak antzekoak mantentzen diren heinean, Europa bezalako mundu garatuan. Esan daiteke trantsizioa modu honetan gertatzen dela:

**elebakartasun soziala → elebitasun soziala (edozein motatakoa) → elebakartasun soziala**

1. aurreko+bertako+berezko hizkuntzaren alde —normalizazioaren bitartez, nekezagoa dena—,
2. ala geroko+etorritako+erantsitako hizkuntzaren alde —ordezkapenaren bitartez, errazagoa dena—.

Hau horrela ikusi eta onartu zuten mendebaldeko mundu garatu honetan, zenbait kasutan. Adibidez, Kanada estatuan aipatutako lehen kasua

aukeratu zuten eta gurean eragina izan zuen Hegoaldean, Espainiako Autonomi Estatuarekin, 1970 hamarkada bukaeran. Izan ere, estatuko lurralde batzuetako berezko hizkuntzentzat —euskararentzat, katalanarentzat eta galizierarentzat— euren garapenerako neurri batzuk hartzeko aukera zabaldu zen.

Kanadaren kasuan, 1970 hamarkadan baita ere, azpi-lurraldeka elebarkartasun ofiziala ere garatu zen, horrelako bilakaera historikoa eginez:

Kanada osoa ingelesezko elebarkartasunetik → Kanada osorako ingelesezko + frantsesezko elebitasunera → Kanada lurraldetan bereiztea: 1) batzuk ingelesezko elebarkartasunera itzuliz (probintzi gehienak), 2) beste batzuk frantsesezko elebarkartasunera igaroz (Québec, adibidez), 3) eta probintzi gutxi batzuk elebitasun jarraituz (adibidez Ottawa, Kanadako hiriburua izanez, bertan estatuko administrazio publikoa dagoelako). Ingles-hiztunak %75 inguru dira, eta frantses-hiztunak %25. Hori guztia, ordea, kontuan izan gabe bertako jatorrizko herriak eta hizkuntzak, horiekiko politika berezia izan baita, ghetto moduan mantenduz.

Europar ere baditugu antzeko etsenpluak. Belgika Estatuaren historia horren lekuko da. 1963. urtean herrialdean lau lurralde linguistiko bereiztea legez onartu zen (1970ko konstituzioa) modu honetan: 1) frantses-elebakarra —frantses-hiztunak %39 dira—, 2) flandesera edo nederlandera elebakarra —flandesera hiztunak %60 dira—, 3) frantsesa eta flandesera ofizialak diren lurralde elebiduna, Brusela hiriburua bertan kokatzen delako estatuko administrazio publikoa. Hori guztia gertatzen da frankofonoen %20ak flandesera ere ezagutzen duen arren, eta flandeseraz hitz egiten dutenen %60 frantsesa ere ezagutzen duten arren. 4) Elebitasunezko lurralde txiki bat ere bada, non jatorrizko alemana eta frantsesa ofizialak diren. Aleman-hiztunek populazioaren %1a osatzen dute, eta “gutxiengo eta erregionala hizkuntza” moduan sailkatua dago taldea (Council of Europe 1992). Bestelako hizkuntzak ere badira, etorkinekin batera bertaratutakoak, ofizialtasunik ez dutenak.

Kasu berriagoak ere ezagunak ditugu Europan: Txekoslovakia estatua zatitu zenean, Txekiak bere jatorrizko hizkuntza gorde zuen, eta baita Eslovakiak ere. Antzera gertatu zen Jugoslavia zatitu zenean ere.

Zatitu gabe, ordea, Suitza estatua dugu. Hasieratik, 1848 konstituzioak estatu federal moduan antolatuz, 4 lurralde elebarkar bereiziz, hizkuntzen lurralde-banaketa honela geratu zen: 1) alemana; bere hiztun-kopurua populazioaren %64a izanik; 2) frantsesa, bere hiztun-kopurua populazioaren %20a, 3) italiarra, bere hiztun-kopurua populazioaren %7a, eta 4) erromantxera, populazioaren %1arekin. Populazioaren gehiena elebiduna da alemana ere erabiltzen dutelako. Kasu honetan, hiriburua ez da ofizialki eleanitza, nahiz eta estatuko instituzioetan —gobernuan, parlamentuan...— hizkuntza bakoitzerako kuotak dauden.

Eta Europako Batasuna (EB) bera etsenplu bezala hartu dezakegu: 1) Europako Batasuna osatzen duten estatuetako hizkuntza ofizialak, hala

---

*Teorian litekeena ikusten bada ere, praktikan ezinezkoa gertatzen ari zaigu. Are gehiago kontuan hartzen badugu -dakigun neurrian-munduan zehar inoiz ez dela egon “elebitasun orekatua”.*

---

*Ezin al da Estatu  
Espainiarrean, adibidez,  
bertan dauden hizkuntza  
guztiak -euskara,  
katalana eta galiziera  
espainierarekin batera  
erakunde publikoetan  
erabili, aldi bereko  
itzulpenarekin behar  
denean?*

dira erakunde horretan ere. Hau da, EBren erakunde publiko guztietan erabilgarri dira, horretarako aldi bereko itzulpena erabiltzen delarik beharrezkoa denean; 2) Zeregin batzuetarako, ordea, hizkuntza gutxi batzuk gehiago erabiltzen dira, “lan-hizkuntzak” dira. Horien artean daude ingelesa, alemana eta frantsesa bereziki. Hizkuntzen aniztasuna mantendu nahian, hizkuntza bat baino gehiago erabiltzea erabaki zuen Europako Batasunak, ziurrenik ingelesarekiko elebakartasuna gainditzeko asmoarekin. Gai horri lotuta, aipatu behar da Estatu Espainiarrak egin dituela hainbat ekimen espainiera ere lan-hizkuntza moduan onartua izan dadin; 3) EBan dauden bestelako hizkuntzak, estatuetako ofizialak ez izan arren nolabaiteko aitortza lortu dutenak euren estatuetan “gutxiengo hizkuntzak edo hizkuntza erregionalak” dira; gure kasuan, euskara. Hizkuntza horiek beren lurraldeetan mantentzeko eta garatzeko, estatuak neurri batzuk hartzera bultzatuta daude. Eginbehar hori Estatu Espainiarrak hobeto betetzen du Frantziarrak baino euskararekiko. Hizkuntza erregionalen artean salbuespena katalanarekin gertatu da, izan ere, EBko Parlamentuan erabilgarri izatea lortu zuen duela urte batzuk.

EBko testuinguru honekiko galderen artean, orain egingo nituzkeenak honakoak dira: 1) Ezin al da Estatu Espainiarrean, adibidez, bertan dauden hizkuntza guztiak —euskara, katalana eta galiziera espainierarekin batera erakunde publikoetan erabili, aldi bereko itzulpenarekin behar denean? 2) Ezin al da lortu hizkuntza bakoitzak bere berezko lurraldean -euskara Euskal Herrian adibidez—, nahikotasunez funtzionatzea, ia elebakartasunean, nahiz eta hiztunak eleanizdunak izan, EBko hiztunak eleanizdunak diren antzera?

Baina gure kasuan, euskara egoera kaskarrean dago hiru hizkuntzatalde ezberdin bezala bereizi direlako —EAE erkidegoa, Nafarroa (Nafarroa Garaia) eta Iparraldea—, gure lotsa eta zori txarrerako —Council of Europe / Conseil de l’Europe 1992—, geopolitikoki estatuak egiten dutena EBak berak onartuz. Gure egoerari buruz zer esango nuke? Oso kaskarra dela, jadanik ezagutzen dugun bezala. Izan ere, elebitasun orekaturik ez lortzeaz gain, horranzko bilakaera argirik ere ez baitugu, zuri-beltzez beteta dagoelako, eta oraindik nekezagoa ikusten delako bestelako eredurik gurean aplikagarri gertatzea. Adibidez, nola interpretatu gaur egungo instituzio politiko nagusietako buruek eta arduradunek euskaraz ez jakitea? Espainieraz elebakardunak izatea, jakinda azken 30 urte pasa ondoren bazirudiela hori jadanik lortuta genuela? Eta hori normala izango balitz bezala adieraztea? Modu horretan, euskara soberan dagoen zerbait bezala hartzen da, erredundantea eta baliogabea, eta espainiera “hizkuntza komuna” eta nahikoa bezala kontsideratuz —espainiera beharrezkoa baina euskara aukerazkoa— espainieraren aldeko “Manifiesto para una lengua común” (Vargas Llosa et al. 2008) dokumentuan iradokitzen den bezala.

Hori guztia kontuan hartuta, argi ikusten dut aldaketa handiak behar ditugula benetan nahi badugu: 1) gutxienez, elebitasun orekatu eta simetrikoa Euskal Herrian lortu, miraria litzatekeena —baina ez al da jadanik

miraria euskararen iraupena bera?—, 2) edo, hobeto, elebitasun jasangarria lortu euskararentzat, jakinda orduan elebitasun asimetrikoa behar duela izan, argi euskararen aldekoa izango dena; 3) agian gehiago ere pentsa dezakegu, geopolitikoki egoera aldatuz, behar den autonomia edo autokontrol-maila lortuz —estatu federalaren bitartez? Estatu independentearen bitartez agian?—, baina geroko utziko dut gai hau. Mota guztietako aldaketak behar dira horretarako, jadanik badirudi gure BAT aldizkariako azken bi zenbaki hauetako tituluetan adierazten den bezala. Egia esan, bi horiek irakurtzeko minez nago. Gai honi buruz ere baditugu argitalpen berri interesgarri batzuk, adibidez: UNESCO Etxearekin erlazionatzen diren guztiak, batzuetan gure aldizkariako batzordekide batzuek ere parte hartuz, edo aldizkarian bertan emaitzak emanez (Barreña et al. 2003); *Babeli gorazarre /Babel o barbarie* (Baztarrika 2009), *Soziolinguistika Eskuliburua* (Zarraga et al. 2010) (aldizkariako batzordekide batzuek berriro ere parte hartuz),... Honetan ere gure BAT aldizkaria emankorra izan da (35. zenbakia, adibidez).

Berritu behar honetan, nahiko nituzke iritzi batzuk eskaini hemen, euskararen normalizazioa zerbait “oso konplexua” dela azpimarratu nahian, konplexua alderdi guztietatik ikusita, eta konplexutasun hori kontuan hartzea ezinbestekoa izanik, gure arteko eztabaidarako proposamen gisa emanez:

- Euskararen normalizazioa lortzea eta mantentzea, nola ulertu daiteke? 1) Noraino da elebitasun orekatua eta simetrikoa lortzea gure artean —eta artikulua honetan ere— askotan aipatzen den bezala? 2) Posible al da lortzea euskararen kontrako elebitasun desorekatuan jarraituz, gutxitu eta menpeko hizkuntzarako, euskararako gure kasuan? Eta posible al da egungo mendebaldeko mundu garatuan? 3) Ez al da beharrezkoa normalizazioa lortu eta jasangarria gertatzeko, gutxitu eta menpeko hizkuntzari lehentasuna ematea, behar duen nahikotasuna lortu dezan? 4) Ekologiak dion bezala, ez al da beharrezkoa hizkuntza bakoitzak bere jatorrizko eta berezko lurraldean —geopolitikoki—, eta gizartean, neurri handiko nahikotasunez funtzionatu ahal izatea, eta horretarako kanpotik laguntzea eta ez trabak jartzea? 5) ezinbestekoa al da elebitasun egoetatik elebakartasun egoerara pasatu behar izatea, gorago ikusi ditugun kasuetan bezala?
- Orain arte sortu edo gureganatu ditugun ereduak (Sánchez Carrión Txepetx 1987, adibide, eta Fishman 1991, 2001 hurrenez hurren), gehienbat azpimarratu dituzte barneko eginbeharrak, euskal mundu barrutik egin beharrekoak, Euskal Herriaren zeregina bezala hartuz; baina garaia da kanpotik ere gehiago egin beharra, gure ukipen egoeran daudenekin ere pentsatzea —Espainiar eta Frantziar estatuak, alde batetik, eta beren ordezkariak Euskal Herrian bestalde—. Hizkuntza-ukipena bien edo gehiagoen arteko zerbait delako, horregatik bi noranzko harremanak kontuan hartu behar dira.

---

*Ekologiak dion bezala, ez al da beharrezkoa hizkuntza bakoitzak bere jatorrizko eta berezko lurraldean —geopolitikoki—, eta gizartean, neurri handiko nahikotasunez funtzionatu ahal izatea, eta horretarako kanpotik laguntzea eta ez trabak jartzea?*

---

*defendatu al daiteke gaur  
egun euskararen eta  
espainieraren artean  
diglosiarik dagoenik?  
Non dago diglosiaren  
arabera bereiztu behar  
den muga, hizkuntza  
bakoitzak nolako  
funtzioak betetzen diren  
ikusteko?*

• Diglosia dugu modu anbiguoan eta nahasian erabiltzen dugun beste kontzeptu bat. Egia esan ez da harrizkeoa, literaturan bertan horrela adierazten zaigulako, adibidez Hudson (2002) zuzendaritzapean *Outline of a theory of diglossia* izeneko argitarapenean —nik dakidan neurrian, nazioartean azken ikuspegi orokorra eman nahi duen argitalpena—. Nahiz eta gure kasuan (Azurmendi 2002) bi tradizio nagusiak aplikagarri diren, Fergusoni jarraiki hizkuntza bakarraren baitan, eta Fihsmenen arabera hizkuntza ezberdinen artean, gurean gehiago aplikatu ohi dena, hain zuzen. Coyos adituak (2010) ondo jasotzen ditu diglosiari buruz esandakoak. Hala ere, iruditzen zait kontzeptu hori ere eztabaidatu beharrean gaudela, ez bakarrik gure artean modu ezberdinetan erabiltzen delako, baizik eta modu okerrean ere erabiltzen delako. Adibidez, defendatu al daiteke gaur egun euskararen eta espainieraren artean diglosiarik dagoenik? Non dago diglosiaren arabera bereiztu behar den muga, hizkuntza bakoitzak nolako funtzioak betetzen diren ikusteko? Espainiera funtzio guztietarako gordetzen bada, eta euskararako ez oraingoz —nahiz eta askotan baietz esaten den—, denok espainiera —edo frantsesa— baldin badakigu baina ez ordea euskara, nola ulertu beharko litzateke gurean diglosia ematen dela esatea? Diglosia baino gehiago, ez al da hizkuntza baten erredundantzia-egoera, euskararen erredundantzia ia osoa, horrela soberakoa gertatuz? Irtenbidea izan daiteke diglosia kontzeptua erabiltzerakoan halako definizio modukoa ematea, horri buruz gero esango dena modu argian ulertu ahal izateko. Hau ere eztabaidagarri dugula pentsatzen dut.

• Orain arte gehien landu diren analisi, plangintza eta aplikazio mailak izan dira gizarte eta pertsona mailakoak, baina badira beste batzuk ere kontuan hartu beharrekoak (Azurmendi 1988). Nahiz eta bi maila horiek gehien erabiltzen direnak izan —besteak beste, horrela komeni zaielako maila goragoko, dominatzaile edo menderatzaileei—, proposatuko nuke ondokoak bereiztea eta erabiltzea, gutxienez gure arteko eztabaidetan:

1. maila geopolitikoa (Azurmendi 1988, 1998), batez ere Euskal Herria eta estatuen —espainiarra eta frantsesa, gure kasuan— mailak jasotzen dituen, eta baita goragoko mailak ere —Eba gure kasuan— beraien arteko egoerak eta harremanak erkatuz, nolakoak diren diagnosiak, helburua/k eta irtenbidea/k egoki proposatu ahal izateko;

2. maila soziala edo sozietala, Euskal Herrian bertan —euskal lurraldean bertan— bi edo hiru hizkuntzen artean —edo gehiago, munduan zehar zenbait kasutan—, euskara eta espainiera edo frantsesa gurean, berriro ere erkatuz, nola banatzen diren mota guztietako ondasunak eta gabeziak ikusteko: politiko eta juridikoak, ideologikoak, ekonomikoak, kulturalak;

3. talde-mailakoa eta talde-barnekoa, maila sozialean gertatzen diren talde-mota ezberdinen arabera, baita hiztun-talde ezberdinen artean ere; honetan “artekotasuna” eta erkaketa dira oinarriak sortu diren zenbait teoria ulertzeko, teoria gero aurreko maila zabalagoetan egokitu eta aplikatu direnak ere;
4. maila norbanakoa o pertsonala, partikularrena dena, bai pertsona-barnekoa —gaur egun garrantzi handia ematen zaiona— eta baita pertsona-artekoa ere, interaktibotasuna azpimarratuz, aztertu daitezkeenak.

Jakin behar da baita ere, maila ezberdinen arteko lotura oso handia dela. “Artekotasuna” da berriz ere oinarritzko kontzeptua eta praktika, maila bakoitzean eta maila-artean ere, Doise adituak (1982) aspaldi esan zigun bezala. Jakin behar da eraginkorragoa dela, orokorrean, maila zabalenetik hasi eta maila partikularrago-etarako noranzkoak, alderantzizkoak baino. Bestela esanda, eraginkorragoa da maila geopolitikotik abiatzea pertsonengana heltzeko alderantziz baino, nahiz eta gaur egun azterketek eta itxaropenek gehiago azpimarratzen duten pertsonaren barne-maila.

• Ikuspegi anitzak behar ditugu; diziplina askoren artekotasuna erabili behar dugu beraien artean osagarriak direlako. Adibidez, maila geopolitikoan gehiago erabiliko dira politika, zuzenbidea, antropologia, ekonomia,...; gizarte-mailan gehiago soziologia, ekonomia,...; talde-mailan gehiago gizarte-psikologia, soziologia,...; eta pertsona-mailan gehiago psikologia, gizarte-psikologia. Honen alde dago ere, gaur egun, ekologiaren ikusmira defendatzea, ekologia bera problematika globala delako. Horrela, euskararen kasurako aplikatzen hasia da ikuspegi hori, jadanik *BAT* aldizkariaren azkeneko 75. zenbakian adierazten den bezala (Azurmendi 2010, Hermosilla 2010). Diziplina ezberdinen arabera teoria anitzak jasoko ditugu, egoera anitzerako osagarriak izango direnak. Pentsa daiteke egokiak izango direla azterketa- eta aplikazio-maila ezberdinen arabera. Jadanik erabiliak ere baditugu, gure ukipen-egoera aztertuz, eta horrela konparatiboki erabiltzekoak dira, adibidez: 1) maila zabalenerako gehiago, geopolitiko eta gizartekoa: ideologia, bizitasun edo bizindarra etnolinguistikoa —objektiboa eta subjektiboa—, akulturazio estrategiak, eta abar (Azurmendi 1998, 2000, et al. 1996; *BAT*, 35, 2000; Giles 1977; Landry et al. 1994; Romay et al. 1999); 2) maila partikularrenetarako gehiago, taldekoa eta pertsonala: usteak, jarrerak, motibazioak (Arratibel 1999, et al. 2001), beharrak, nahiak, emozioak (Azurmendi 2008), identitatea (Azurmendi et al. 1996, 1998, 2008; Baxok et al. 2006), eta abar. Egia da gaur egun azpimarratzen dela liberalismoaren eta indibidualizazio-garaian gaudela, “indibidualizazio instituzionalaren garaian” areago

---

*Diglosia baino gehiago,  
ez al da hizkuntza baten  
erredundantzia-egoera,  
euskararen  
erredundantzia ia osoa,  
horrela soberakoa  
gertatuz?*



---

*Eraginkorragoa da maila geopolitikotik abiatzea pertsonengana heltzeko alderantziz baino, nahiz eta gaur egun azterketek eta itxaropenek gehiago azpimarratzen duten pertsonaren barne-maila.*

joanez, pertsona-mailari zentraltasuna emanez (Bauman 2010; Beck 1995, 2003; Giddens 2004;...), baina gutxienez zentzuduna da pertsonatik harago joan behar izatea, oraindik ere pentsatzen dudalako maila zabalenetatik ematen den eragina handiago dela. Erne egon beharra!

- Konplexua da baita ere bereiztea alde batetik, beharrezkoa edota derrigorrezkoa dena, eta bestalde nahiaren araberrakoa, aukerakoa dena. Hizkuntza ukipenak gehienetan asimetrikoak direla jakinda, ohikoa da beharrezkoa + derrigorrezkoa +... ezaugarriak hizkuntza dominatzaileek izatea, horrela ideologikoki ere defendatuz. Alderantziz, nahiaren araberrako + aukerazkoa +... menpeko den hizkuntzen ezaugarritzat hartzen dira, askotan ideologikoki onartuz dominatzaileen ideologia bera, “indefensión aprendida” izeneko teoria psikosozialak adierazten duen bezala. Benetan helburua balitz elebitasun orokatu lortzea, ez al litzateke hobe bide berdinei jarraitzea? Edo bide ezberdinak jarraitzekotan menpeko hizkuntzei esleitzea beharrezkotasuna eta derrigortasuna? Euskararekin gertatzen dena, ordea, bide egoki bat da bere menpekotasuna iraugarri egiteko, problema gutxiekin gainera iraugarri gertatzeko, iraugo duen bitartean behintzat. Ideologiarekin, orokorrean, antzera gertatzen da: dominatzaileek sortzeko eta aldatzeko duten erraztasuna handia da, eta hori menpekoek onartzeko erabiltzen dituzten estrategiak ere trebeak dira. Honekin euskarara etorritz, berriz ere ikusten dugu zer gertatzen zaigun euskal kasuan, berriz ere gure zori txarrerako, nire ustez noski.

- Ez dagokio hau guztia ordea, zuzenean behintzat, “elebiduntasun indibidualaren” mailan ematen den edo eman daitekeenari —ezta ere “elebakarduntasun indibiduala” denari ere—. Maila pertsonalean eleaniztuntasuna posible bakarrik ez, abantaila ere bada, alderdi guztietatik ikusita ere. Azterketa eta aplikazio bi maila hauek, elebitasun geopolitikoa, soziala edo gizarteko —eta eleaniztasuna ere— eta elebiduntasun indibiduala edo pertsonala, —baita eleaniztuntasuna ere— ondo bereiztea oso beharrezkoa da, argitasuna egiteko, eta ez nahasketan mantentzeko. Bereizketa hori nahiko ondo erakusten dute Hamers et al. (1983, 1989, 2000) aspaldidanik “bilinguisme et bilingualité”, edo “bilingualism and bilinguality”, deituz. Elebitasuna eta eleaniztasuna zaila den bezala, elebiduntasuna eta eleaniztuntasuna erraza da, abantailaz betea.

## **4.2. Eleaniztasuna**

Eleaniztasuna aplikazio-maila zabaletan gertatzen den egoera da, maila geopolitikoan eta gizartean, batez ere. Asko laburtuz, eta gure mendebaldeko munduan kokatuz, —batez ere EBean—, bi eleaniztasun-mota nagusi bereizi daitezke: 1) hizkuntza atzerritarra/k onartzearen bidea 2) immigrazioko pertsona atzerritarrak onartzearen bidea.

- “Hizkuntza atzerritarrak onartzea” kontzeptuak esan nahi du, behar berezi batzuetarako komenigarriak direla ikusiz, unitate geopolitiko batean —gehienetan estatuetan— edo gizarte batean hizkuntza horiek ikasi egiten direla funtzio berezi batzuekin erabiltzeko. Horrelakoetan, nazioartean beharrezkoenak direnak aukeratu ohi dira. Gaur egun ingelesarekin gertatzen da mundu-mailan *lingua franca* modura, eta gurean ere diplomazian, zientzian, argitalpen zientifikoetan, kulturean, bidaie-tan,... erabiltzeko —unibertsitate—mailan gehiago balio du ingelesez argitaratzea, espainieraz edo, are gehiago, euskaraz argitaratzea baino. Beste hizkuntza batzuek ere nahiko lukete antzeko egoera izan, horien artean espainierak. Horretarako gaur egun zenbait egitasmotan mota guztietako errekurtsuak erabiltzen dira, adibidez “Instituto Cervantes” erakundearen bitartez, dirudienez modu arrakastatsuan (Azurmendi et al. 1996, Noceda 2010). Gizarte mailan, hizkuntza horiek ikastea lortzea erraza da gizarte horrekiko unitate geopolitikoek derrigorrezkoa egiten badute, populazio osora iristeko helburuarekin hezkuntzaren bitartez. Hori da hain zuzen ere, gurean ingelesarekin gertatzen dena. Kontuan hartu behar dugu baita ere Europako Batasunak atzerriko bi hizkuntza ikastea gomendatzen duela, hezkuntzaren bitartez, horrela Europako hiritarren mugikortasuna Europa barruan bultzatuz. Gurean, hezkuntza-sisteman beste hizkuntza batzuk ikasi daitezke —frantsesa, alemana, eta abar—. Egoera hori ez da berez hizkuntza-ukipenezkoa, ondo bereizten direlako bertakoa edo berezkoa alde batetik, behar gehienetarako egunerok erabilgarri dena —edo direnak, batzuetan, gurean gaur egun—, eta atzerritarrak bestetik, behar berezi batzuetarako eta batzuetan erabiltzeko direnak. Beste mota bateko diglosia baten aurrean al gaude? Hala ere, hiritarrek derrigorrez ikasi behar dute, neurri bateraino behintzat —Europako Batasunean jadanik ezarria—, eta ez da aukerakoa. Euskararen kasura itzuliz, horren esanahia ikusten dugu: Euskal Herrian ingeleza ikastea derrigorrezkoagoa da bertako eta euskal lurraldeko berezko den euskara baino. Nola interpreta dezakegu hori?
- “Pertsona atzerritarrak onartzea” bestelakoa da, aurrekoa baino gai konplexuagoa, noski. *BATEko* 52. zenbakia (2004) —*Euskara eta etorkinak*— gorago landu dugun neurrian, orain gutxiago mintzatuko naiz. Gai horren inguruan asko dakigu —nahiz eta nahikoa ez izan oraindik—, zenbait azterketa eskuragarri ditugulako UNESCO Etxearen bitartez (Uranga et al. 2008), Immigrazioaren Euskal Behatokia-Ikuspegiren bitartez (<http://www.ikuspegi.org>, 2007-2010 bitartean) eta unibertsitateko hainbat ikerketaren bitartez (Azurmendi et al. 2008, et al. 2009; Basabe et al. 2004; Berasategi et al. 2009; Echepeleleku 2010, Etxepeteleku et al. 2009; Larrañaga et al. 2009; Martínez-Taboada et al. 2006;...). Gure artean hizkuntzak eta immigrazioaren inguruko gaiak duen konplexutasuna ikusteko, hainbat datu ezagutu behar ditugu 2007. urtean Euskal Herriko Hegoaldeari dagozkienak (Uranga et al. 2008):

---

*Gizarte mailan,  
hizkuntza horiek ikastea  
lortzea erraza da gizarte  
horrekiko unitate  
geopolitikoek  
derrigorrezkoa egiten  
badute, populazio osora  
iristeko helburuarekin  
hezkuntzaren bitartez.  
Hori da hain zuzen ere,  
gurean ingelesarekin  
gertatzen dena.*

**Nola egin hizkuntza-politika eta plangintza egokiak bertan dauden hizkuntza guztiek neurriren bateko garapena lortzeko, beti ere euskararekiko lehentasun argia gordez?**

1. Amerikatik 75.164 pertsona etorri ziren 13 estatutik. Etorकिन %48,7a osatzen zuten eta 5 hizkuntza berezkoak eta beste 4 hizkuntza europarrak ekarri zituzten (0,38 estatu/hizkuntza ratioa).
2. Europatik 45.414 pertsona etorri ziren 24 estatutik. Etorकिन %29,4a osatzen zuten eta 29 hizkuntza berezkoak ekarri zituzten (1,2 estatu/hizkuntza ratioa).
3. Afrikatik 27.892 pertsona etorri ziren 20 estatutik. Etorकिन %18,1a osatzen zuten eta 52 hizkuntza berezkoak eta 3 europarrak ekarri zituzten (2,6 estatu/hizkuntza ratioa).
4. Asiatik 5.838 pertsona etorri ziren 9 estatutik. Etorकिन %3,8a osatzen zuten eta 14 berezko hizkuntza eta 2 hizkuntza europarrak ekarri zituzten (1.66 estatua/hizkuntza ratioa).
5. Ozeaniatik 137 pertsona etorri ziren. Etorकिन %0,1a osatzen zuten.

Orotara, 66 estatutik etorritako 154.445 pertsonen artean, gutxienez, 100 berezko hizkuntza eta 4 hizkuntza europarrak bertaratu ziren.

Eta hau guztia 10 urtetan zehar, gutxi gora-behera.

Egoera honekiko lehen galdera da nola jokatu pertsona horiekin? Eta bigarrena, nola jokatu beraientzat berezko eta guretzat etorri-berriak diren hizkuntzekin? Nola lotu gurean dugun elebitasun desorekatua —euskararentzat eskasegia dena— datorkigun eleaniztasun berri handiarekin? Nola egin espainiera derrigorrezkoa eta euskara aukerazkoa izatetik, beraientzat —guztiontzat— euskara ere derrigorrezkoa izatea? Nola egin bateragarri lehenago esandakoak euskararekiko, euskararen normalizazioa lortzearen helburuarekin? Nola egin hizkuntza-politika eta plangintza egokiak bertan dauden hizkuntza guztiek neurriren bateko garapena lortzeko, beti ere euskararekiko lehentasun argia gordez? Zorionez, ari dira zenbait gauza egiten etorkinen berezko hizkuntzekin, esate baterako, haurrekin hezkuntzako D eredura bideratuz eta beren berezko hizkuntzak ikusgai eginez; gurasoekin euskalduntzea eskainiz eta beren berezko hizkuntzak neurriren batean erabiliz; pertsona guztiekin beren berezko hizkuntza batzuk —hiztun gehien dituzten hizkuntzak— erabiliz, bai ahoz —adibidez, zenbait udaletan festetako hasierak hizkuntza batzuetan eginez—, baita idatziz ere —adibidez, *Euskal Herria ezagutu* liburua, 2009an Eusko Jaurlaritzak argitaratu zuena euskaraz, espainieraz, frantsesez, ingelesez, eta arabieraz, errumanieraz eta txineran ere); halako omenaldi bat ere jaso dute etorkinek, 2010ean, SOS-Racismo erakundeak antolatuta eta zenbait bertako erakunde eta pertsona garrantzitsuek parte hartuz: “Premios a inmigrantes que han aportado a la riqueza y diversidad de la sociedad vasca” izenekoa. Hala ere, egoera oso anitza eta konplexuan gaude. Gai emergentea da oraindik BATeko 52. zenbakian ikusi dugun bezala. Guretzat beste gai garrantzitsua da, aztertzeko eta planifikatzeko: ea asmatzen dugun gauzak ondo egiten!

Eleaniztasuna kudeatzea maila geopolitikoan eta gizarte-mailan nekeza den bezala, maila pertsonaleko eleaniztuntasuna lantzea erraza dela esan beharra dago elebitasunaren kasuan esan dugun modura. Ondo bereizi beharreko aztertze- eta aplikazio-mailak dira.

Bestelako gaietara pasatuz, eztabaidagarri dugu baita ere *terminologia teknika* bera, zeren elebitasuna eta eleaniztasunaren kasuan bezala, ez dauke oraindik guztiz baturik euskaraz “lurralde” esanahiarekin lotura duten hainbat termino. Adibidez, euskara “Euskal Herriko lurralde-hizkuntza” den bezala, Euskal Herria “euskal lurraldea” da. Beste adibidea honakoa izan daiteke: zenbait inguruko hizkuntzatan bereizten dena da 1) espainieraz: “personalidad” eta “identidad”, 2) frantsesez: “personnalité” eta “identité”, 3) ingelesez: “personality” eta “identity”, ..., 4) euskaraz, berriz, askotan nahasten dira, “nortasuna” terminoa erabiliz gehiegitan, eta “identitatea” gutxitan erabiliz. Egia da bi kontzeptu horien artean muga zehatzik jartzea nekeza dela. Hala ere, gehienetan ez da problema handirik izaten “nortasuna” erabiltzeko pertsona barrutik kanporako noranzkoan, eta “identitatea” berriz, alderantziz, gehiago kanpotik barrurako noranzkoan. Agian, egokia da hemen honako proposamena egitea: “nortasuna” espainieraren “personalidad” kontzeptuaren zentzuan erabiltzea, eta “identitatea” espainieraren “identidad” terminoarenean. Hau jadanik proposatu dut BAT aldizkarian, Erramun Baxok-i omenezko 67. zenbakian (Azurmendi et al. 2008). Bereizketa garrantzitsua da baita ere gaur egun aztertzen ari garen gai hauetan identitatea delako eragin handiko prozesua, nahiz eta hau ere aldatzen ari den, eta zenbait adituk esaten duenez, gero eta aldakorragoa izango den egungo neo-modernismoan (Castells 1998).

Ez dugu berdin erabiltzen “diglosia” terminoa ere —edo “diglossia”—. Eta, gutxitan ematen dugu aurretik halako definizioa, jakinda literaturan ere ez dela beti berdin erabiltzen. Terminoen arteko nahasmenduko adibide gehiago ere badira.

Hau horrela izanik, ez al gara gu, soziolinguistikan adituak-edo garenok, soziolinguistikako terminologia teknikoaren arloan proposamenak egin beharko genituzkeenak, baita galderak jaso beharko genituzkeenak ere? Horrela pentsatuz, ausartu nahiz honakoak esaten.

**BUKATZEKO**, esan nahi nuke gure aldizkaria biziraupen luzekoa izatea espero dugula, euskararen historiarekin lotuz: 1) oraingoz, euskararen normalizazioa lortu arte, —historia motzekoa izatea nahi genukeen— 2) ondoren, historia luzekoa izatea, euskara hizkuntza normala bezala mantendu eta garatu ahal izateko, eta beste hizkuntzekin harreman onak izateko. Izan daiteke hori eleaniztasun aberatsa biziz agian? Eta hori guztia BAT aldizkariak jasotzen saiatuko da. Ahaleginak egingo al ditugu horrela gertatzeko? ■

---

*Egokia da hemen honako proposamena egitea: “nortasuna” espainieraren “personalidad” kontzeptuaren zentzuan erabiltzea, eta “identitatea” espainieraren “identidad” terminoarenean.*

## BIBLIOGRAFIA

- Alvarez Enparantza, J. L. "Txillardegi" (2002). *Hacia una Sociolingüística Matemática*. Donostia: SEI (Soziolinguistika Klusterra).
- Arratibel, N., Aurmendi, M.-J. & Garcia, I. (2001). *Menpeko hizkuntzaren bizikemena*. Donostia: SEI & UEU.
- Azurmendi, M.-J. (1977). Elebitasuna. In SIADECO, *Euskararen liburu zuria (El libro blanco del euskara)*. Zuz.: Iñaki Larrañaga. Euskaltzaindia.
- Azurmendi, M.-J. (1988). Psicosociolingüística del contacto de lenguas. In II. *Euskal Mundu-Biltzarra. Euskara Biltzarra, II.: Hizkuntza eta Gizartea /II Congreso Mundial Vasco. Congreso de la Lengua Vasca, II: Lengua y Sociedad*. Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza/Gobierno Vasco.
- Azurmendi, M.-J. (1998). Importancia del "soporte institucional" para la normalización del uso del euskara. In *Actes de la Cinquena Trobada de Sociolingüistes Catalans. Barcelona, 24 i 25 d'abril de 1997*. Barcelona: Generalitat de Catalunya.
- Azurmendi, M.-J. (2000). *Psicosociolingüística*. Bilbo: UPV/EHU.
- Azurmendi, M.-J. (2002). Outline of a theory of diglossia: Comentarios. In A. Hudson (Issue ed.), *Outline of a theory of diglossia. International Journal of the Sociology of Language (IJSL)*, 157, 49-58.
- Azurmendi, M.-J. (2008). Euskara erabiltzearen erraztasunaren /zailtasunaren eragin emozionala eta horren ondorioak. *UZTARO*, 64, 83-97.
- Azurmendi, M.-J. (2010). Hizkuntza-ekologia eta jasangarritasuna, globalizazio aroan: euskarari begira. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 75: *Euskararen Presentzia Unibertsitatean*. 165-182.
- Azurmendi, M.-J., Bachoc, E. & Zabaleta, F. (2001). Reversing Language Shift: The Case of Basque. In J. A. Fishman (ed.), *Can threatened languages be saved? Reversing Language Shift, REvisited: A 21st Century Perspective*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Azurmendi, M.-J. & Garcia, I. (2003). Planificación lingüística y construcción de ciudadanía. In *2n Congrés Europeu sobre Planificació Lingüística / 2d European Conference on Language Planning*. Barcelona: Generalitat de Catalunya.
- Azurmendi, M.-J. & Larrañaga, N. (2008). La inmigración emergente en la Comunidad Autónoma Vasca (CAV) desde la sociedad de acogida: la aculturación. In J.F. Morales, C. Huici, Á. Gómez & E. Gavidia (coords.), *Método, teoría e investigación en psicología social*. Madrid: Pearson & Prentice-Hall.
- Azurmendi, M.-J., Larrañaga, N. & Apalategi, J. (2008). Bilingualism, identity, and citizenship in the Basque Country. In M. Niño-Murcia & J. Rothman (eds.), *Bilingualism and Identity. Spanish at the crossroads with other languages*. Amsterdam/Philadelphia: J. Benjamins.
- Azurmendi, M.-J., Larrañaga, N. & Apalategi, J. (2008). Identitate Etnolinguistikoa (IELa), Euskal Autonomi Erkidegoan (EAEan). *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 67: *ERRAMUN BAXOKen omenez*, 2008, 131-150.

- Azurmendi, M.-J. & Larrañaga, N. & Etxepeteleku, H. (2009). Diversidad lingüística y cultural en la Comunidad Autónoma Vasca (CAV) (DILICU-CAV): La inmigración, desde la sociedad de acogida. *Actas del XI Congreso Nacional de Psicología Social. Tarragona, 2009*. Tarragona: Universitat Rovira i Virgili (URV), CD-ROM II (Referencia 5-149).
- Azurmendi, M.-J. & Martínez de Luna (ed.) (2006). *The Case of Basque: Past, Present and Future*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- Azurmendi, M.-J., Romay, J. & Valencia, J.F. (1996). Identidad étnica y relaciones intergrupales en el mundo hispanohablante. In R.Y. Bourhis & J.-Ph. Leyens (eds.), *Estereotipos, discriminación y relaciones entre grupos*. Madrid: McGraw-Hill.
- Basabe, N., Zlobina, A. & Páez, D. (2004). *Integración socio-cultural y adaptación psicológica de os inmigrantes extranjeros en el País Vasco*. Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco.
- BAT Soziolinguistika Aldizkaria, 1 (1990). *Hizkuntza perfilak. Elkar hizketa Iñaki Larrañagarekin*.
- BAT Soziolinguistika Aldizkaria, 30 (1999): *Suomieraren normalkuntzaz*.
- BAT Soziolinguistika Aldizkaria, 31 (1999): *Euskararen aldeko gizarte-mugimendua eta EKB, azken 25 urteak gainbegiraturaz*.
- BAT Soziolinguistika Aldizkaria, 35 (2000): *Hizkuntza Eskubideak eta Lege Eremua*.
- BAT Soziolinguistika Aldizkaria, 50 (2004): *15 urte bete dituela-eta, BAT aldizkariari zorionak! Unibertsitatea eta euskara*.
- BAT Soziolinguistika Aldizkaria, 52 (2004): *Euskara eta etorkinak*.
- BAT Soziolinguistika Aldizkaria, 53 (2004): *Euskararen bilakaera azken ikerketen argitan*.
- BAT Soziolinguistika Aldizkaria, 75 (2010): *Euskararen presentzia unibertsitatean*.
- Bauman, Z. (2010). *Mundo consumo. Ética del individuo en la aldea global*. Barcelona: Paidós.
- Baxok, E., Etxegoin, P., Lekunberri, T., Martínez de Luna, I., Mendizabal, L., Ahedo, I., Itzaina, X. & Jimeno, R. (2006). *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Baztarrika, P. (2010). *Babeli gorazarre. Bizikidetzarako hizkuntza politika zilegi eta eraginkorra (Babel o barbarie)*. Irun: Alberdania.
- Beck, U. (1998). *Políticas ecológicas en la edad del riesgo: antídotos, la irresponsabilidad organizada*. Barcelona: El Roure.
- Beck, U. & Beck-Gernsheim, E. (2003). *La individualización. El individualismo institucionalizado y sus consecuencias sociales y políticas*. Barcelona: Paidós.
- Berasategi, N. & Larrañaga, N. (2009). Diversidad lingüística y cultural en la Comunidad Autónoma Vasca (CAV) (DILICU-CAV): El alumnado inmigrante en la escuela. *Actas del XI Congreso Nacional de Psicología Social. Tarragona, 2009*. Tarragona: Universitat Rovira i Virgili (URV), CD-ROM II (Referencia 5-151).

- Castells, M. (1998). *La era de la información: economía, sociedad y cultura*. Vol. II: *El poder de la identidad*. Madrid: AlianzaEditorial.
- Coyos Etxebarne, J.-B. (2010). Hizkuntza-Ukipena. In A. Zarraga, J.-B. Coyos, J.M. Hernández, L. Joly, I. Larrea, L.V. Martínez, B. Uranga & P. Bilbao, *Soziolinguistika Eskuliburua*. Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza /Gobierno Vasco & Soziolinguistika Klusterra.
- Council of Europe /Conseil de l'Europe (1992). *European Charter for Regional or Minority Languages /Charte Européenne des langues régionales ou minoritaires*. Strasbourg: Council of Europe/Conseil de l'Europe.
- Doise, W. (1982). *L'explication en psychologie sociale*. Paris: PUF.
- Echepeteleku, H. (2010). *Stratégies d'Acculturation de Populations Etrangères Migrantes au sein de la Communauté Autonome Basque (CAB): Approche Comparative*. Toulouse-2-Le Mirail Unibertsitatean aurkeztutako doktorego-tesia.
- Etxepeteleku, H., Azurmendi, M.-J. & Apalategi, J. (2009). Diversidad lingüística y cultural en la Comunidad Autónoma Vasca (CAV) (DILICU-CAV): La inmigración, desde los propios grupos inmigrantes. *Actas del XI Congreso Nacional de Psicología Social*. Tarragona, 2009. Tarragona: Universitat Rovira i Virgili (URV), CD-ROM II (Referencia 5-150).
- Eusko Jaurlaritzza /Gobierno Vasco (2008). *IV. Inkesta Soziolinguistikoa, 2006 /IV Encuesta Sociolingüística, 2006*. Vitoria/Gasteiz: EJ/GV.
- Eusko Jaurlaritzza /Gobierno Vasco (2009). *Conocer el País Vasco. Viaje al interior de su cultura, historia, sociedad e instituciones*. Vitoria/Gasteiz: EJ/GV.
- Fishman, J. A. (1991). *Reversing Language Shift (RLS). Theoretical and empirical foundations of assistance to the threatened languages*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Fishman, J. A. (2001). *Can threatened languages be saved? Reversing Language Shift, Revisited: A 21st Century Perspective*. Clevedon: Multilingual Matters.
- García, I. (2000). *Euskararen erabileran eragiten duten prozesu psikosozialak: Identitate etnolinguistikoaren garrantzia* (Doktorego Tesia). Bilbao: UPV/EHU.
- Giddens, A. (2004). *Sociología*. Madrid: Alianza Editorial.
- Giles, H. (ed.) (1977). *Language, Ethnicity and Intergroup Relations*. London: Academic Press.
- Hamers, J. & Blanc, M. (1983). *Bilingualité et Bilinguisme*. Bruxelles: Mardaga / (1989, 2000). *Bilinguality and Bilingualism*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Hermosilla, D., Arrospide, J.J. & Azurmendi, M.-J. (2010). Hizkuntza kudeaketa enpresetan globalizazio aroan: Lau enpresetan dinamikak, ikuspegiak eta posizio berriak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria, 75: Euskararen Presentzia Unibertsitatean*. 165-182.
- Hernández García, J. M. (2010). Hizkuntzak aztergai: Ikerketa-metodoetara ionarritzko hurbilpena. In A. Zarraga, Coyos, J.-B., Hernández, J.M.,

- Joly, L., Larrea, I., Martínez, L.V., Uranga, B. & Bilbao, P. (2010). *Soziolinguistika Eskuliburua*. Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak / Gobierno Vasco & Soziolinguistika Klusterra.
- Hudson, A. (Issue ed.) (2002). *Outline of a theory of diglossia*. *International Journal of the Sociology of Language (IJSL)*, 157.
- Ikuspegi. Immigrazioaren Euskal Behatokia (2010). *Barómetro 2010*. (<http://www.ikuspegi.org>).
- Landry, R. & Allard, R. (eds.) (1994). *Ethnolinguistic Vitality*. *International Journal of the Sociology of Language*, 108.
- Larrañaga, N., Azurmendi, M.-J. & Apalategi (2009). Diversidad lingüística y cultural en la Comunidad Autónoma Vasca (CAV) (DILICU-CAV): Construcción psicosocial de ciudadanía. *Actas del XI Congreso Nacional de Psicología Social. Tarragona, 2009*. Tarragona: Universitat Rovira i Virgili (URV), CD-ROM II (Referencia 5-151).
- Larrañaga, N., Azurmendi, M.-J., Berasategi, N. & Etxepeteleku, H. (2010). Aniztasun lingüistiko eta kulturala euskal eskolan. *Inguruak (Revista Vasca de Sociología)*, monográfico especial, 61-69.
- Mackey, W.F. (1976). *Bilinguisme et Contact des Langues*. Paris: Klincksieck.
- Martínez de Luna, I. & Berrio-Otxoa, K. (zuz.) (2000). *Etorkizuna Aurreikus-ten 99: Euskal Herriko Gaztetxoak eta Euskara*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak.
- Martínez-Taboada, C., Arnosó, A. & Elgorriaga, E. (2006). *Estudio del choque psicosocial de las personas inmigradas en Donostia/San Sebastián*. Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak / Gobierno Vasco.
- Noceda, M. A. (2010). *El valor económico de un idioma redondo. El español se consolida en el mundo como segunda potencia lingüística que hablan 440 millones de personas*. *El País*, 27/02/2010.
- Romay, J., García-Mira, R. & Azurmendi, M.-J. (1999). Identidad etnolingüística y vitalidad etnolingüística en las Comunidades Autónomas bilingües (CAB) de España. *Revista de Psicología Social*, 14, 1, 87-106.
- Sánchez Carrión, J. M. "Txepetx" (1987). *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las Lenguas*. Donostia: Elkar.
- SIADeco (1977). *Euskararen liburu zuria*. Euskaltzaindia.
- Uranga, B., Aierdi, X., Idiazabal, I., Amorrortu, E., Barreña, A. & Ortega, A. (2008). *Hizkuntzak eta Immigrazioa / Lenguas e Inmigración*. Bilbo: Ikuspegi, Unesco-Etxea Amarauna, Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra & UPV/EHU.
- Vargas Llosa, M., Marina, J. A., Arteta, A., de Azúa, F., Boadella, A., Castilla del Pino, C., de Cuenca, L. A., Espada, A., González Troyano, A., Lastra, A., Iglesias, C., Martínez Gorriarán, C., Pardo, J. L., Pombo, A., Rodríguez, R., Ruiz Soroa, J. M., Savater, F. & Sosa Wagner, F. (2008). *Manifiesto por una lengua común*. *El País*, 23/06/2008.
- Zalbide, M., Gardner, N., Erize, X. & Azurmendi, M.-J. (2006). The Future of Basque in RLS Perspective. In M.-J. Azurmendi & I. Martínez de



- Luna (ed.), *The Case of Basque: Past, Present and Future*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- Zarraga, A., Coyos, J.-B., Hernández, J.M., Joly, L., Larrea, I., Martínez, L.V., Uranga, B. & Bilbao, P. (2010). *Soziolinguistika Eskuliburua*. Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco & Soziolinguistika Klusterra.